



Euskaltzaindiaren  
**Oroitidazkia**

**2005**

Bilbo, 2006

Testu-idazketa: Pello Telleria, Amaia Okariz, Itziar Rekalde.  
Testu gainbegiratzea: Xabier Kintana

© Euskaltzaindia  
Plaza Barria, 15. 48005 Bilbo  
E-mail: [info@euskaltzaindia.net](mailto:info@euskaltzaindia.net)  
Webgunea: [www.euskaltzaindia.net](http://www.euskaltzaindia.net)

Fotokonposizioa: Ikur, S.A.  
Muros de San Pedro, nº 4. 48007 Bilbo

Inprimategia: Baster S.L.L.  
Atxukarro Poligonoa, 2. 48480 Arrigorriaga (Bizkaia)

Lege-gordailua: BI-2880-06

# AURKIBIDEA

---

<b>Aurkezpena</b> .....	7
<b>I. Erakundearen jarduerak</b> .....	9
I.1. Akademiaren jarduerak .....	11
I.2. Batzar bereziak .....	19
I.3. Kanpoko jarduerak .....	21
I.4. Euskaltzaindia erakundeetan .....	25
I.5. Heriotzak .....	27
I.6. Hilberri txostenak .....	29
I.7. Izendapenak eta ordezkapenak .....	31
<b>II. Akademia-jarduera</b> .....	37
II.1. Hiztegi-gintza .....	41
II.1.1. Orotariko Euskal Hiztegia .....	41
II.1.2. Euskaltzaindiaren Hiztegia .....	43
II.1.3. Hiztegi Batua .....	43
II.2. Gramatika .....	47
II.3. Euskararen Herri Hizkeren Atlas .....	49
II.4. Onomastika .....	51
II.5. Literatura .....	55
II.5.1. Herri Literatura .....	55
II.5.2. Literatura Ikerketa .....	57
II.5.3. Sariketak .....	59
II.6. Euskara Batua .....	63
II.7. <i>Jagon</i> saila .....	65
II.7.1. Corpus alorreko lanak .....	65
II.7.2. Sustapen alorreko lanak .....	67
<b>III. Erakunde zerbitzuak</b> .....	69
III.1. Egoitza eta ordezkariak .....	71
III.2. Azkue Biblioteka .....	79
III.3. Argitalpenak .....	83
<b>IV. Herri Administrazio eta erakundeak</b> .....	87
IV.1. Eusko Jaurlaritza eta hiru diputazioak .....	89

IV.2. Nafarroako Gobernua . . . . .	90
IV.3. Estatu Administrazioa . . . . .	91
IV.4. Iparraldeko Herri Aginteak . . . . .	92
IV.5. Udalak . . . . .	93
IV.6. Unibertsitateak . . . . .	95
IV.7. Euskaltel . . . . .	96
IV.8. EiTB . . . . .	96
IV.9. Euskal Herriko ikastolen konfederazioa . . . . .	96
IV.10. Topagunea . . . . .	97
IV.11. FEVE . . . . .	98
<b>V. Euskaltzaindiaren organigrama . . . . .</b>	<b>321</b>
V.1. Euskaltzainen eta kargudunen zerrendak . . . . .	323
V.2. Batzordeen zerrenda . . . . .	325
V.3. Helbideak/Aurkitegia . . . . .	329

## Aurkezpena

2005. urtea Euskaltzaindiak Zuzendaritza berrituz hasi zuen. Jean Haritschelhar-ek, hamazortzi urtetan gure Akademiaren lemaizain trebea izan ondoren, erabakia zuen aspaldian adinagatik berriz ez aurkeztea. Hortaz, hauteskundera egin eta Zuzendaritza talde berria eratu zen, oraingotan Andres Urrutia *euskaltzainburu*, Beñat Oihartzabal *euskaltzainburuorde*, X. Kintana *idazkari*, Jose Luis Lizundia *diruzain*, Henrike Knörr *Iker sailburu* eta Andres Iñigo *Jagon sailburu* gertatuz.

Zuzendaritza berriak, Erakundearen asmoak eta proiektuak finkatzeko, bere XIV. Barne Jardunaldiak egin zituen udaberrian Argomaizen. Hor, gainera, bi urterako batzordekideak izendatu ziren. Garrantzi handikoa izan zen, halaber, Jardunaldi horietan arautegia aldatu eta euskaltzain emerituak sortzeko prozeduraz aho batez lorturiko akordioa, Euskaltzaindiaren berriztapen, iraute eta segida orekatua ekarriko duena.

Urtean zehar, Juan San Martin eta Patxi Ondarra euskaltzain osoen heriotzak ekarriko hutsuneak betetzeko, bi euskaltzain berri izendatu dira: Ana Toledo gipuzkoarra eta Patxi Salaberri nafarra, unibertsitateko irakasleak biok.

Urteurrenetan beren jaioterrietan idazleak omentzeko orain arteko ohiturari jarraikiz, aurten Joan Perez Lazarragaren IV. mendeurrena Arabako Barrundian, Frantzisko Lapitz eta Jean Pierre Arbelbideren mendeurrena Irisarrin eta Esteban Urkiaga “Lauaxeta”ren mendeurrena Mungian eta Laukizen ospatu dira, hor, Euskaltzaindiaren ohiko bilkurez gainera, jendeaurreko ekitaldiak izanik.

Munduko gainerako Hizkuntz Akademia ofizial eta erakundetuen antzera, mintzairaren aldeko lanak, behin planifikatu eta batzorde berezietan erdibanatu ondoren, ohiko prozeduraz betetzen hasten dira, jarririko helburuak banan-banan epeka lortu arte. Maiz, ordea, helburu horietara iristeko bidea luzea izaten da, eta horretarako lana, bere ohikotasunean, astitsu eta are ere gogaikarria gertatzen da. Baina euskal esaera zaharrak gogorarazten digunez *–dindika murkoa betatu doa–*, aldika, ustekabe bezala, aspaldian hasiriko lanak azkenean bukatuak ikusteko poza ere izaten dugu, gure gizarteari aurkezteko gertu. Eta aurten era horretako gertakaria izan dugu, *Orotariko Euskal Hiztegiaren* hamaseigarren eta azken liburukia argitaratzean, Koldo Mitxelena zuzendaritzapean hasi eta Ibon Sarasolaren ardurapean amaitua.

Bestalde, Gramatika batzordearen EGLU-VI (*Mendeko perpausak 2*) liburua argitaratu du Euskaltzaindiak, zenbait urteren buruan egindako lanen emaitza.

Sustapen batzordeak, era berean, IX. *Jagon Jardunaldiak* antolatu ditu “Eliza eta euskara Bilboko eta Donostiako elizbarrutietan” gaia aztertzeko.

Akademiak, bere eginkizunetarako, nahitaezkoa du laguntza publikoa. Alde horretatik, EAEko Herri Aginteekin hitzarmen berria sinatu da, Euskaltzaindiaren oinarrizko azpiegitura eta lan akademikoa ziurtatzen duena. Bide berean, Nafarroako Gobernuarekin ere urteroko protokoloa sinatu da, eta gauza bera egin da, halaber, Frantziako Euskararen Erakunde Publikoarekin ere.

Gainera, lehen aldiz, Instituto Cervantesekin eta FEVE-rekin hitzarmen bana sinatu da, erakundeen arteko harremanak landu eta bideratzeko.

Lan hauek guztiok ez ziratekeen egingo, noski, eguneroko zereginen anonimotasunean erdi estalirik, Euskaltzaindiaren proiektuak ibilian jartzen arduratzen diren behargin ugarien ahaleginei esker ez balitz. Gure eskerrak guztiei.

Xabier Kintana Urtiaga,  
idazkaria

# **I. Erakundearen jarduerak**





## I. ERAKUNDEAREN JARDUERAK

### I.1. AKADEMIAREN JARDUERAK

#### 2005eko ekintza nagusiak

Ondoko taulan ematen da Euskaltzaindiak 2005ean egin dituen osoko batzar, mendeurren eta jardunaldien berri:

Hila	Eguna	Tokia	Zer
Urtarrila	27 28	Bilbo	- Kargu aldaketa - Batzar arrunta
Otsaila	25	Donostia	- Batzar arrunta
Martxoa	18	Bilbo	- Batzar arrunta
Apirila	22	Donostia	- Batzar arrunta - Hilberri txostenak: Jose Mari Larrarte eta Jose Garmendia
Maiatza	26, 27, 28	Argomaiz Ozeta Larrea	- Batzar arrunta - XIV. Barne Jardunaldiak - Joan Perez Lazarragaren heriotzaren IV. Mendeurrena (1605 – 2005)
Ekaina	23, 24	Bilbo Bilboko Udaletxea	- Batzar arrunta - Adolfo Arejitaren sarrera hitzaldia
Uztaila	21, 22	Irisarri	- Batzar arrunta - Jean-Pierre Arbelbideren eta Francisco Laphitz-en heriotzen mendeurrena (1905 – 2005)
Iraila	23	Altsasu	- Batzar arrunta - Nafarroa Oinez: J. M. Satrustegiri omenaldia - Juan Goikoetxearen jaiotzaren mendeurrena (1905 – 2005)
Urria	21	Mungia Laukiz	- Batzar arrunta - Esteban Urkiaga “Lauaxeta”ren jaiotzaren mendeurrena (1905 – 2005)
Azaroa	24, 25	Donostia	- Batzar arrunta - VIII. Herri Literatura Jardunaldiak
Abendua	16	Bilbo	- Batzar arrunta - IX. Jagon Jardunaldiak

## Kargu aldaketa

Egoitzan, urtarrilaren 27an, bildu da Euskaltzaindia, 2004ko abenduaren 17an hautatu zen Zuzendaritza berriaren kargu-hartzea gauzatzeko. Euskaltzain oso eta hainbat urgazlez gain, agintari nagusi hauek izan dira: M. Jesús San Segundo, Espainiako Hezkuntza Ministroa; Juan José Ibarretxe, EAEko Lehendakaria; Juan Mari Atutxa, Eusko Legebiltzarreko Burua; José Luis Bilbao, Bizkaiko Foru Diputatu Nagusia; Jose Juan Gonzalez Txabarri, Gipuzkoako Foru Diputatu Nagusia eta, Pedro Pegenaute jauna, Nafarroako Presidentearen ordez etorri dena. Horiez guztiez gain, instituzio, erakunde eta elkarte ugariaren ordezkariak izan dira.



Egoitzan, euskaltzainburu berriaren kargu-hartzea, 2005-I-27an. **Ezkerretik eskuinera:** María Jesús San Segundo, Juan Jose Ibarretxe, Jean Haritschelhar eta Andres Urrutia.

Hau izan da ekitaldiaren egitaraua:

- Xabier Kintana Euskaltzaindiko idazkariak, mahaikoak aurkeztu ditu eta kargu-aldaketaren ziurtagiria irakurri.
- Jean Haritschelhar euskaltzainburu ohiak Euskaltzainburu berriari makila eman dio.
- Andres Urrutia euskaltzainburu izendatu berriaren hitzak.
- Maria Jesus San Segundo Hezkuntza Ministroaren hitzak.
- Juan Jose Ibarretxe lehendakariaren hitzak.

## HABE Patronatoko ordezkari berria

Otsailean Zuzendaritzak egindako bileran erabaki bezala, aurrerantzean Andres Iñigo, Jagon sailburua den aldetik, izango da Euskaltzaindiaren ordezkaria HABEren Zuzendaritza Batzordean.

## Frankfurt-eko Unibertsitateko irakasleei harrera

Martxoaren 3tik 6ra Frankfurt-eko Unibertsitateko lau irakasle izan dira Euskal Herrian, Unibertsitate horrek Eusko Jaurlaritzarekin sinatu zuen hitzarmenaren bidez.

Unibertsitate alemanak Euskal Ikasketak eta Euskal Liburutegia bultzatuko ditu. Martxoaren 3an, Idazkariak, Kudeatzaileak eta Idazkariordeak hartu dituzte irakasle horiek, Euskaltzaindiaren berri emanez.

### Sariak emateko proposamenak

Eusko Jaurlaritza eta Euskadiko Kutzaren 2005eko Euskal Herritar Unibertsala sari-rako hautagaiak aurkezteko aukera eman zaio Euskaltzaindiari. Euskaltzaindiak, martxoaren 18ko osoko batzarrean, sari horretarako CENTER FOR BASQUE STUDIES (CBS), UNIVERSITY OF NEVADA, RENO (UNR) aurkeztea erabaki du.

Eusko Ikaskuntza eta Euskadiko Kutzak, urtero bezala, 2005eko sarirako deia egin dute, Humanitate, Kultura, Arte eta Gizarte Zientzien arloan. Hautagaiak aurkezteko aukera eman zaio Euskaltzaindiari eta Erakundeak, martxoaren 18ko osoko batzarrean, sari horretarako Patxi Altuna euskaltzaina aurkeztea erabaki du.

### Euskal Genealogiari buruzko Jardunaldiak

Apirilaren 18an eta 19an, "Euskal Genealogiaz" izenburuko Jardunaldiak egin dira Euskaltzaindiaren egoitzan, Nevada-Renoko Center for Basques Studies eta Akademiak antolatutak. Renon, Euskal Genealogia deituriko proiektua abian jartzeko asmoa dute, hau da, Estatu Batuetako euskaldunen datu-base biografikoa; zenbait aditu bildu dira bi egunotan, egitasmo horren nondik norakoak aztertzeko. Honako gai hauek jorratu dira:

- Euskal Herriko parroketan dauden dokumentuen digitalizazioari buruzko informazioa: Bilbo, Donostia eta Gasteizko elizbarrutietako artxiboen datu-base digitalizatuen berri eman da.
- Euskaltzaindiaren lana, Onomastika arloan: Akademiaren *Euskal Deituren Izendegia* erakutsi zaie bertan bildutakoei, baita baserri izenak biltzen dituen datu-basea ere. Bestetik, Euskaltzaindiak sortu berri duen Euskal *Corpus Onomastikoa* (ECO) egitasmoaren azalpenak eman dira.
- Center for Basques Studies zentroaren datu-base genealogikoen egitasmoa aztertu da: Euskal Genealogia egitasmoaren xede nagusia, Ameriketako herrialde horretan izan den euskal emigrazioa aztertzea da.

### Joan Perez Lazarragaren omenezko ageriko bilkura

Maiatzaren 28an, Joan Perez Lazarragaren IV. Mendeurrena dela eta, Barrundiako Udaletxean, Ozeta herrian (Araba) ageriko bilkura egin du Euskaltzaindiak. Mahaiburuan



Ozetan, Barrundiako Udaletxean, Joan Perez Lazarragaren IV. mendeurrena, 2005-V-28an. **Ezkerretik eskuinera:** Juan Vidal-Abarca, Xabier Kintana, José Félix Uriarte, Andres Urrutia, José Ángel Segura eta Henrike Knörr.

hauek izan dira: Andres Urrutia euskaltzainburua, Jose Felix Uriarte Barrundiako alkatea, Jose Angel Segura Larreako auzo-alkatea, Federico Verastegui Arabako Kultura Diputatua eta hiru hizlariok:

- Juan Vidal-Abarca Erret Akademiako kidea: "La familia Lazarraga en la Llanada Alavesa".
- Xabier Kintana, idazkaria: "Lazarraga poeta zahar gaztearen berri onak".
- Henrike Knörr, Iker sailburua: "Joan Perez de Lazarragaren genealogia-izkribuak: zenbait ohar".

Ageriko bilkura amaitu ostean, Larrean, Lazarragaren omenezko Euskaltzaindiaren oroitarria jarri da. Honela dio oroitarriak: "Euskaltzaindiak Joan Perez de Lazarragari bere heriotzaren IV. mendeurrenean. 2005eko maiatzaren 28an". Euskaltzainekin batera, Jose Felix Uriarte Barrundiako alkatea eta Jose Angel Segura, Larreakoa, izan dira.

### Hezkuntza arloko titulazioak

Espainiako Hezkuntza Ministerioak aldatu edota kendu nahi dituen titulazioak direla eta, Euskaltzainburuak hiru gutun bidali ditu Hezkuntza Ministeriora, Euskal Filologia lizentziatura ez dadin ken eskatuz.

### Jimeno Jurio zenaren ikerketa lanen dohaintza Euskaltzaindiari

Jose Maria Jimeno Jurioren ikerketa lanen emaitzak Euskaltzaindiari eman zizkion haren familiak, ekainaren 17an Iruñean izandako ekitaldian. Bertan izan ziren Elena Aranguren eta Roldan Jimeno, ikertzaile eta ohorezko euskaltzainaren alarguna eta semea; baita Andres Urrutia euskaltzainburua, Andres Iñigo Nafarroako ordezkaria eta Onomastika batzordeko kideak ere. Dohaintzari esker, Euskaltzaindiak Jimeno Juriok bildutako toponimia-fitxak eta Euskararen Historiaren gaineko lana eskuratuko ditu.



Iruñean, Jimeno Jurio zenaren ikerketa lanen dohaintza Euskaltzaindiari, 2005-VI-17an. **Ezkerretik eskuinera:** Andres Iñigo, Andres Urrutia, Roldan Jimeno eta Elena Aranguren.

## Francisco Laphitz eta Jean-Pierre Arbelbideren omenez, Irisarrin

Irisarrin, Denen Etxean, 2005eko uztailaren 21ean, bildu da Euskaltzaindia, Francisco Laphitz eta Jean-Pierre Arbelbideren heriotzaren mendeurrenean. Ekitaldiaren hasieran herriko auzapezak, Jean-Pierre Indaburu jaunak, ongietorria eman die bertaratu direnei eta euskaltzainburua ere mintzatu da, ondoren hitza emanez hizlariari:



*Irisarrin, Denen Etxean, F. Laphitz eta J-P. Arbelbideren mendeurrena, 2005-VII-21ean. **Ezkerretik eskuinera:** Piarres Xarritton, Andres Urrutia, Jean-Pierre Indaburu, Pello Salaburu eta Jean Haritschelhar.*

- Pierre Charritton: “Frantzisko Laphitz–Arriadaren bizia eta lanak”.
- Pello Salaburu: “F. Laphitz: euskara batua eta euskara ereduak”.
- Xipri Arbelbide: “Jean-Pierre Arbelbideren bizia eta lanak”.

Bilkura honetan Jean Haritschelhar euskaltzain ohiak, Pierre Duny Pétré euskaltzain urgazlearen hilberri txostena irakurri du.

## San Martinen hutsartea iragarri

Ekainaren 23ko osoko batzarrean, Euskaltzainburuak hil berri den Juan San Martin euskaltzain osoaren hutsartea iragarri du.

## Onomastika Zerbitzuaren arduraduna

2004ko ekainaren 24an, Zuzendaritzak Baionan egin zuen bileran, Onomastika Zerbitzua sortzea erabaki zuen. Horren ondorioz, 2005eko uztailan, Mikel Gorrotxategi zerbitzu horren arduradun izendatua izan da.

## Euskaltzain berriak

Irailaren 23an, Euskaltzaindiak Altsasun egin duen osoko batzarrean, Juan San Martin euskaltzain zenaren hutsunea betetzeko, Ana Toledo aurkeztu dute honako euskaltzain

hauek: Jose Luis Lizundia, Jean Haritschelhar eta Xabier Kintanak. Urriko osoko batzarrean, euskaltzain oso izendatu dute Ana Toledo Leceta andrea.

Bestalde, azaroaren 25ean, Donostian izandako osoko batzarrean, Patxi Ondarra euskaltzainaren hutsartea betetzeko, Patxi Salaberri Zaratiegi eta Rosa Miren Pagola aurkeztu dituzte. Andres Iñigo, Patxi Zabaleta eta Henrike Knörr euskaltzainek aurkeztu dute Salaberri, eta Pagola, berriz, Patxi Goenaga, Beñat Oihartzabal, Pello Salaburu eta Piarres Xarriton euskaltzainek. Abenduko osoko batzarrean, euskaltzain oso izendatu dute Patxi Salaberri Zaratiegi jauna.

### **Lauaxetaren omenez, Mungian**

Urriaren 21ean, Mungian eta Laukizen, zenbait ekitaldi burutu ditu Euskaltzaindiak Esteban Urkiaga *Lauaxetaren* omenez.

Goizean, osoko bilkura egin du Akademiak Mungiako Agirre Jauregian. Ostean, Mungiako hilerrira joan dira euskaltzainak Esteban Urkiagaren arrebarekin, han baita poetaren jaiotzaren mendeurrena gogorarazten duen oroitarria.



Mungian, Agirre jauregian, *Lauaxetaren* jaiotzaren mendeurrena, 2005-X-21ean; **Ezkerretik eskuinera**: Xabier Altzibar, Andres Urrutia, Jose Antonio Torrontegi eta Paulo Iztueta.

Ondoren, Laukizen, *Lauaxeta* sortu zen herrian, Joseba Llona Laukizko alkateak ongietorria eman die euskaltzainei eta jarraian Esteban Urkiagaren sortetxean –gaur egun Laukizko Udaletxea dena– bi erakundeen izenean ezarritako oroigarria agerian utzi du Andres Urrutia euskaltzainburuak. Honela dio plakak: “Esteban Urkiaga “*Lauaxeta*”ren mendeurrenean, Laukizko Udalak eta Euskaltzaindiak. 2005-X-21”. Arratsaldean, ageriko bilkura egin da Agirre Jauregian, honako egitaraua betez:

- Jose Antonio Torrontegi alkatearen ongietorria.
- Andres Urrutia euskaltzainburuaren agurra.
- Xabier Altzibarren hitzaldia: “*Lauaxeta* eta *Euzkadi* egunkariko Euskal Atala”.
- Paulo Iztuetaren hitzaldia: “Tradizio jesuitikoa eta *Lauaxeta*”.

## **Nafarroa Oinez-ekin, Altsasun**

Aurreko urteotan bezalaxe, aurten ere *Nafarroa Oinez* festarekin bat egin du Euskaltzaindiak Altsasun. Goizez osoko bilkura eginez Udaletxean eta arratsaldean, 2005eko Nafarroa Oinez antolatzen duen Iñigo Aritza Ikastolara bisita egin dute euskaltzainek. Ondoren, Luziano Agirre Urdiaingo alkateak eta Andres Urrutia euskaltzainburuak eman diote hasiera ageriko bilkurari, non hitzaldi hauek irakurri diren:



*Altsasun, Iortia Kultur Etxean, Nafarroa Oinez dela eta, 2005-IX-23an.*

**Ezkerretik eskuinera:** Patxi Salaberri, Andres Iñigo, Andres Urrutia, Luziano Agirre, Polentzi Goikoetxea, Maria Flores eta Koldo Zuazo.

- Andres Iñigo: “Juan Goikoetxea euskaltzain urgazlea jaio zeneko mendeurrenean”.
- Patxi Salaberri: “Jose Mari Satrustegi, euskal onomastikaren eragilea”.
- Koldo Zuazo: “Burundako euskara”.
- Maria Flores, Bigarren Hezkuntzako irakaslea: “Basolangintza Sakanan”.

Azken hitzak, Polentzi Goikoetxea, Iñigo Aritza Ikastolako buruak esan ditu.

## **Maixa Goikoetxeari zilarrezko domina**

Aurten, Maixa Goikoetxea Euskaltzaindiaren Donostiako ordezkartzako langileak, hogeita bost urte bete ditu Akademian lanean. Hori dela eta, urte horietan guztietan egindako lan zintzoa aitortuz, Erakundearen zilarrezko domina eman dio Euskaltzainburuak Erakundearen izenean, Donostian, azaroaren 25ean egindako osoko batzarrean.



*Gipuzkoako Foru Aldundian, Maixa Goikoetxeari zilarrezko domina ematea, 2005-XI-25ean.*

**Ezkerretik eskuinera:** Ana Toledo, Maixa Goikoetxea, Andres Urrutia eta Xabier Kintana.





## I.2. BATZAR BEREZIAK

### XIV. Barne Jardunaldiak

Euskaltzaindiak maiatzaren 27an eta 28an egin ditu, Arabako Argomaizen, bere XIV. Barne Jardunaldiak. Bi urterik behin egiten diren batzar hauetan Erakundearen egitura aztertzen da eta behar diren aldaketak erabaki. Aurtengo batzarrean honako txosten hauek irakurri eta aztertu dira:



*Argomaizen, Euskaltzaindiaren XIV. Barne Jardunaldiak, 2005-V-27an.*

- Jose Luis Lizundia: “Arautegi eta Barne Erregelaren aldaketa”
- Beñat Oihartzabal: “Euskaltzaindia Frantziako Legedian”
- Henrike Knörr: “Iker Sailari buruzko txostena”
- Pello Salaburu: “Euskal Gramatika Orokorra egitasmoa”
- Ibon Sarasola: “Hiztegitza egitasmoak”
- Andres Iñigo: “Euskal Corpus Onomastikoa egitasmoa”
- Xabier Kintana eta Pello Telleria: “Eginkizunen txostena”

Horrez gain, lurralde-ordezkariek izendatu dira: Gipuzkoarako, Ana Toledo; Arabarako, Henrike Knörr; Nafarroarako, Andres Iñigo eta Iparralderako Pierre Charriton.

Argomaizen egindako XIV. Barne Jardunaldien ondorengo batzarretan, *Iker* eta *Jagon* Sailtako batzordekideak eta egiturako batzordekideak izendatu dira. Ikus *Oroitidazki* honen VI. atala.

## Adolfo Arejita euskaltzainaren sarrera-ekitaldia

Ekainaren 24an egin da Adolfo Arejita euskaltzainaren sarrera-hitzaldia Bilboko Udaletxean. Ekitaldiaren egitaraua betez, hasieran Iñaki Azkuna Bilboko alkatearen eta Andres Urrutia euskaltzainburuaren hitzak entzuteko parada izan da, bai eta Xabier Kintana idazkariarenak ere.



Bilboko Udaletxean, Adolfo Arejita euskaltzaina sarrera-hitzaldia irakurtzen, 2005-VI-24an.

Andres Iñigo eta Jose Luis Lizundia euskaltzainek lagunduta, batzar aretora sartu da Adolfo Arejita eta *Idatzizko eta ahozko tradizioa gaur egungoari buruz* izeneko hitzaldian, gaur egungo euskara jasoak –batez ere idatziak– gogoan izan beharreko ardatz batzuk izan ditu hizpide. Ondoren, Andres Urrutiak eman dio erantzuna euskaltzain berriari, *Zaharrak berri, euskararen bizigarri* izeneko hitzaldiarekin.

Hitzaldia amaitzean, Euskaltzainburuak euskaltzain osoari dagozkion agiria eta diploma eman dizkio. Ohitura den bezala, besarkada bana eman diote euskaltzainek kide berriari.

Ondoren, opari bana egin diote Arejitari Bilboko Udalak eta Labayru Ikastegiak. Eguerdian, euskaltzainak Morgara abiatu dira, bertako Udalak ere omenaldia eskaini baitio Adolfo Arejitari. Iñaki Lejarraga alkateak Morgako urrezko armarrria duen intsignia eman dio eta Jon Enbeita bertsolariak bertso batzuk eskaini dizkio.


### I.3. KANPOKO JARDUERAK

#### Euskaltzaindia Bordelen

Akitaniako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluak (Conseil Économique et Social) deiturik, urtarrilaren 18an, Jean Haritschelhar eta Beñat Oihartzabal Bordelen izan dira Euskaltzaindiaz eta euskarari buruzko informazioa emateko. Aipatutako Kontseilua txosten bat prestatzen ari da Akitaniako hizkuntzez.

#### Ekueadorren

Xabier Kintana idazkaria Ekueadorren izan da, Euskaltzaindiaren ordezkari bezala, otsailaren 14tik 17ra, Loreto herrian egin den Mintegian. Mintegi horrek, besteren artean, gaztelania ez bestelako Ekueadorreko hizkuntzen Akademia sortzea izan du helburu. Mintegi hori UNESCOren laguntzaz antolatu da eta erakunde horren eskariz joan da Euskaltzaindiaren ordezkaria Ekueadorrera.



*Ekueadorren, Loreto herrian, Xabier Kintana azalpenak ematen, 2005-II-15ean*

Mintegi horretan 11 nazionalitate indigenaren partaideak izan dira, guztiak irakas-kuntza arlokoak, eta hizkuntza hauen ordezkariak: andoa eta kofan (650 hiztun); txatxi (10.000 hiztun); epera (30.000 hiztun); kitxua (3.050.000 hiztun); sapara (50 hiztun); xuar

(80.000 hiztun); xiuiar (1.000 hiztun); tagaeri (500 hiztun); tsatxila (2.000 hiztun) eta waurania (2.000 hiztun).

Xabier Kintanak, euskararen eta Europako eta munduko beste hizkuntza batzuen batasunaz txosten bat prestatu du eta, Ekuadorreko hizkuntza horien egoera eta testuingurua kontuan harturik, proposamen batzuk egin ditu, Hizkuntzen Akademia antolatzeke jarraibideak barne.

### **Alderdi Popularrarekin Donostian**

María San Gil, Alderdi Popularren Euskal Autonomia Erkidegoko buruak eskaturik, otsailaren 24an, Akademiaren Zuzendaritzako kide batzuk aipatutako alderdiaren ordezkariekin bildu dira, Euskaltzaindiaz eta euskararen egoeraz mintzatzeko.

### **"Chornadas d'as Luengas d'Aragón" Jardunaldian**

Apirilaren 15ean, Joxe Ramon Zubimendi euskaltzain urgazleak, Euskaltzaindiaren ordezkari gisa, hitzaldia egin du Zaragozako "Biblioteca de Aragón"en, "Asociación Cultural Nogará"n antolatutako "Chornadas d'as Luengas d'Aragón" Jardunaldian.

Nogará elkarte eta beste zenbait elkarte batu egin dira "Chuntos por l'aragonés" egitasmoa finkatu eta burutzeko, hain zuzen ere, beren hizkuntza batu eta beren Akademia sortzeko asmoarekin. Horretarako eskatu diote Euskaltzaindiari, euskararen batasunerako bidean egindako urratsak azaldu eta horien araberrako aholkuak ematea.

### **Real Academia Galega-ri bisita**

Apirilaren 25ean, Euskaltzaindiko ordezkariak Real Academia Galegarekin bildu dira A Coruñaan. Euskaltzaindiaren izenean, hauek izan dira: Andres Urrutia, euskaltzainburua; Jose Luis Lizundia, diruzaina eta, Juanjo Zearreta, kudeatzailea.

### **"Euskadiko Artxibo Nazionala" Jardunaldian**

Apirilaren 29an, "Euskadiko Artxibo Nazionala (1987 - 2005)" egun osoko Jardunaldia egin da Bizkaiko Foru Artxiboan, Eusko Ikaskuntzak antolatuta. Hizlarien artean, Josune Olabarria Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekako teknikaria izan da "Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekaren Artxiboaz" mintzatuz.

### **Mendebalde Kultura Alkartearen Jardunaldietan**

Maiatzaren 6an eta 7an, Mendebalde Kultura Alkartearak antolatutako "Euskara zientifiko-teknikoa: normalizaziotik homologaziora" izeneko jardunaldietan, Xabier Kintana idazkariak hartu du parte Erakundearen izenean, "Euskaltzaindiaren Hiztegi Batua eta terminologia zientifiko-teknikoak" izeneko mahai-inguruan.

### **Nafarroako Unibertsitateen V. Udako ikastaroen sarreran**

Andres Urrutia euskaltzainburuak egin du aurtengo Nafarroako Unibertsitateen V. Udako ikastaroen sarrera hitzaldia. Ekainaren 28an, Nafarroako Gobernuaren Kultura eta Turismo Sailaren egoitzan egindako ekitaldian, "Nafarroa eta Euskaltzaindia" izeneko hitzaldia irakurri du Euskaltzainburuak.

Ekitaldi akademiko horren mahaiburuan, ondoko hauek izan dira: Miguel Sanz, Nafarroako presidentea; Yolanda Barcina, Iruñeko alkatea; Luis Campoy, Hezkuntza sailburua; Nafarroako Unibertsitatearen eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren errektoreak, Jose María Bastero eta Pedro Burillo, hurrenez hurren, eta Dámaso Munarriz, Caja Navarra Fundazioaren zuzendaria.

Bestalde, Xabier Kintana, Andres Iñigo, Jose Luis Lizundia, Henrike Knörr eta Patxi Zabaleta euskaltzain osoak bertan izan dira, baita Patxi Salaberri Zaratiegi euskaltzain urgazlea eta Juan Jose Zearreta, Euskaltzaindiko kudeatzailea eta Pello Telleria, idazkariordea ere.

### **Euskararen Erakunde Publikoarekin Baionan**

Uztailaren 21ean, Baionan, Kontseilu Orokorraren egoitzan egin den lan-bilkuran Max Brissonnek, Euskararen Erakunde Publikoaren arduradunak, honen asmoen berri eman du. Erakunde hori aurtengo urtarrilean sortu da eta bost atal hauek osatzen dute: Frantziako Estatuak, Akitaniako Eskualdeak, Pirinio Atlantikoetako Departamenduak, Euskal Kultura sostengatzen duen herrien arteko sindikatak eta Euskal Herriko Hautetsien Kontseiluak. Andres Urrutia euskaltzainburuak Zuzendaritza berriaren aurkezpena egin du eta Euskaltzaindiaren lanen berri eman.

### **Udako Euskal Unibertsitatearen sarreran**

Uztailaren 18an, Andres Urrutia euskaltzainburuak egin du Udako Euskal Unibertsitatearen ikastaroen sarrera hitzaldia, Iruñean. Larraona Ikastetxean egindako ekitaldian, “Hizkuntza orokorra-xede berezietarako hizkerak: *Hiztegi Batuaren zeregina*” izeneko hitzaldia irakurri du. Bertan, Euskaltzaindiaren eta UEUren arteko harremanaz hitz egiteaz gain, elkarlanaren garrantzia azpimarratu du, baita Hiztegi Batuaren bigarren itzuliaren edukia ere. Andres Urrutiarekin batera, mahaiburuan, Lore Erriondo, UEUko zuzendaria izan da. Bestalde, Andres Iñigo, Nafarroako ordezkaria eta Patxi Zabaleta, euskaltzaina, ere bertan izan dira.

### **Euskaltzaindia Pisan**

Pisan, abuztuaren 28tik irailaren 4ra bitartean egin da ICOSen XXII. Biltzarra (ICOS: *International Council of Onomastic Sciencies*), eta Onomastika batzordeko kideak diren Henrike Knörr, Jose Luis Lizundia eta Patxi Salaberri Pisan izan dira txosten bana irakurriz; Mikel Gorrotxategi batzorde idazkariarena ere aurkeztu dute.

### **“Ahozko euskara: dakiguna eta darabilguna” Jardunaldiak**

Irailaren 28an eta 29an, Nafarroako Gobernuak eta Euskaltzaindiak antolatuta, “Ahozko euskara: dakiguna eta darabilguna” jardunaldiak burutu dira Uharte-Iruñean, Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroan, Zubiarte eraikinean.

Irailaren 28an, Jardunaldien aurkezpena egin dute Pedro Pegenaute, Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusiak eta Andres Urrutia euskaltzainburuak, ondoren hizlari hauek parte hartu dutelarik:



Uharte-Iruñean, Zubiarte euskaltegian, “Ahozko euskara: dakiguna eta darabilguna” Jardunaldia, 2005-IX-28an. **Ezkerretik eskuinera:** Andres Urrutia eta Pedro Pegenaute.

- Juan Luis Goikoetxea: "Ikasgelako ebaluaketa: ahozkoa idatziaren menpeko".
- Jabier Kaltzakorta: "Axular Nafarroako elezaharretan".

Biharamunean, irailaren 29an, Edu Zelaietak "Baztan-Bidasoako hizkeren ekarpena" gaia jorratu du. Horren ostean eta amaitzeko, Leitza, Arbizu eta Lizarrako ikastetxeetako irakasle banak euren esperientzien berri eman dute ahozkoaren inguruan. Hauek dira mahai-inguruan parte hartu dutenak: Bittorio Lizarraga (Eratsungo ikastetxe publikoa), Unai Errazkin (Lizarra ikastola), Josema Leitza (Nafarroako Bertsozale Elkarte) eta Paskual Rekalde, moderatzaile bezala.

### **"Internacional Conference on methods in Dialectology" izeneko XII. Biltzarrean**

Euskaltzaindiak parte hartu du Université de Moncton-en (*New Brunswick*, Kanada), abuztuan, egin den "XII. Internacional Conference on methods in Dialectology" izeneko biltzarrean. Gotzon Aurrekoetxea hizkuntzalari eta Euskaltzaindiko Dialektologia batzordeko Atlasgintza lantaldeko arduradunak txosten bi aurkeztu ditu biltzar horretan: "The Basque Atlas (EHHA): renewing methods in geolinguistics" eta "Grammatical and lexical variation in the Basque Language" izenekoak. Hiru urterik behin ospatzen den kongresu hau mundu osoko dialektologo ospetsu batzuen gidaritzapean eratzen da. *New Brunswick* probintziako bost unibertsitateen artean eratutako kongresu honetan munduko 176 dialektologo bildu dira.

#### I.4. EUSKALTZAINDIA ERAKUNDEETAN

Euskaltzaindiak erakunde batzuen hainbat ataletan parte hartzen du. Ondoren, erakunde eta atal horiek zeintzuk diren, batetik, eta ordezkariak nortzuk diren, bestetik, zehazten da:

Erakundea	Ordezkaria
Hezkuntza Ministerioaren Biblioteka Nazionala	Euskaltzainburua
Eusko Jaurlaritzako Euskararen Aholku Batzordea	Euskaltzainburua
Nafarroako Euskara Kontseilua	Euskaltzainburua eta Nafarroako ordezkaria
EiTBko Administrazio Kontseilua	Jose Luis Lizundia
Eusko Jaurlaritzako Euskal Gizataldeekiko Harremanak	Henrike Knörr
Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko EIMA programa	Joxe Ramon Zubimendi
Eusko Jaurlaritzako Toponimia Batzordea	Jose Luis Lizundia eta Mikel Gorrotxategi
Eusko Jaurlaritzako Terminologia Batzordea	Andres Urrutia
Fundación Germán Sánchez	Jose Antonio Arana
HABE	Andres Iñigo
Gasteizko Plan Estrategikoaren Batzordea	Arabako ordezkaria





## I.5. HERIOTZAK

### **Jose Garmendia Arruebarrena, euskaltzain urgazlea**

Jose Garmendia Arruebarrena, euskaltzain urgazlea, urtarrilaren 19an hil da Donostian, 79 urte zituela. Jose Garmendia 1925ean jaio zen Zaldibian. Gasteizko Seminarioan ikasi zuen eta 1950. urtean apaiz egin zen. Denbora luzez bizi izan zen kanpoan eta 1990ean itzuli zen Euskal Herrira. Indietako Artxiboak ikertu zituen, baita Juan Ignazio Iztueta Zaldibiako idazle eta dantza ikerlearen bizitza eta lana sakon ikertu ere. Horren emaitza dira, besteak beste, *Iztuetaren olerkiak*, *Iztueta*, *dantzarien maisu*, *Miscelanea* eta *Iztueta al descubierto* izeneko liburuak. Euskaltzaindiak, 1979ko abenduaren 20an euskaltzain urgazle izendatu zuen.

### **Pierre Duny-Pétre, euskaltzain urgazlea**

Pierre Duny-Pétre, euskaltzain urgazlea, martxoaren 24an zendu da Donibane Garazin. Hiri horretan jaioa zen 1914ko apirilaren 3an. Filosofiako ikasketak eginak zituen. *Basajaunaren historia*, *Garaziko hiri nagusian*, *Manexen marrakak*, *Garaziko solasak* eta *Xirula Marula* ipuin eta kontakizunen egilea da, baita artikulu ugariaren sortzailea ere. Kaleratu gabe dagoen liburu bat ere idatzi zuen, frantsesez: *Quelques basques dans la tourmente (1939-1945)*. Euskaltzaindiak 1963ko maiatzaren 18an izendatu zuen euskaltzain urgazle.

### **Juan San Martin euskaltzain osoa**

Maiatzaren 30ean, Hondarribian, Juan San Martin euskaltzain osoa hil da. Eibarren sortua zen, 1922ko ekainaren 23an. Toponimia, Historiaurrea, Linguistika, Artea, Arkeologia, Etnografia eta itzulpengintza landu ditu bere bizitzan zehar.

Euskaltzain gisa, ezinbesteko erreferentzia izan da urte askotan zehar Akademiaren barneko funtzionamenduan. 1964ko abenduaren 18an euskaltzain oso izendatu zuten. Sarrera hitzaldia hamar urte beranduago egin zuen, hots, 1974ko irailaren 14an, Urdazubin, "Literatura landuaren sorrerako giroa, Axularren garaira arte" gaiaz. Akademiako idazkaria izan zen, baita diruzaina, *Jagon* sailburua eta euskaltzainburuordea ere.

### **Eugenio Agirretxe, euskaltzain ohorezkoa**

Uztailaren 7an hil da Bermeon, Frantziskotarren komentuan, Eugenio Agirretxe, euskaltzain ohorezkoa, 84 urte zituela. Eugenio Agirretxe Azpillaga Errezilen jaio zen, 1920ko azaroaren 15ean; Frantziskotar fraidea zen. Euskal Herrian zehar hamaika herri eta hiritan ibilia zen sermolari bezala, eta gizarte-arazoetan ere lan handia egin zuen. Gerra osteko euskal elizak izan duen sermolari, misiolari eta hizlari sutsu eta dotoreenetako bat izan da. Euskaltzain ohorezko zen 1998ko apirilaren 24tik.

### **Patxi Ondarra, euskaltzain osoa**

Uztailaren 30ean hil da Patxi Ondarra Erdozia, euskaltzain osoa, Iruñean, 80 urte zituela.

Bakaikun jaioa, 1925eko maiatzaren 19an, apaiz kaputxinoa zen. Bizitza osoan irakasle jardun zuen Ondarrak, 1951tik 1990 arte, Txilen, Tuteran, Zangozan, Donostian eta Lekarozen. Nafarroako testu zahar ugari landu zituen, Goñerrikoak bereziki, baita Joakin Lizarraga Elkanokoari buruzko lan franko ere, eta azkeneko urte hauetan Aita Polikarpo Iraizozkoaren lanak hiru liburukitan kaleratu zituen, besteak beste. Lekarozen maisu zegoela, arkeologia lantzen hasi zen eta horri buruzko zenbait idazlan idatzi zuen. Izan ere, megailito bilatzaile eta aurkitzaile izan dugu, eta horri buruzko artikuluak idatzi ditu. Besteren artean, Baztango Soloarko menhirraren aurkikuntza –1973. urtean– neurri handi baten, hari zor diogu. Gaur egun, Elizondoko Jorge Oteiza Museoan dago menhirra. Euskaltzaindiak 1979an izendatu zuen euskaltzain urgazle eta euskaltzain oso, berriz, 1980ko uztailaren 31n. Gramatika batzordeko kidea zen eta Onomastika batzordeko aholkulari. Dialektologia batzordekide ere izan zen, hamabi urtez.

### **Jose Mari Aranalde, euskaltzain urgazlea**

Jose Mari Aranalde, euskaltzain urgazlea, irailaren 24an hil da, 72 urte zituela.

Gipuzkoako Gaztelu herrian jaio zen 1933an. Aranaldereen lana, euskararen eremuan, bertsolaritzari oso lotua izan da. Hamaika bertso idatziak ditu, eta urtetan bertso-jartzaile lanean aritu da. Bertsolariekin izandako harremanaren emaitza dira Hark idatzitako liburuak: *Xalbador* (1996), *Xalbador pertsularia* (1996), *Bihotzak dion hura* (1999), *Bertso kontuak* (1999) eta *Xalbadorren barrua* (2001). Euskaltzaindiak, 1975eko ekainaren 27an, euskaltzain urgazle izendatu zuen.

### **Juan Mari Lekuona, euskaltzain osoa**

Abenduaren 5ean hil da Juan Mari Lekuona Berasategi, euskaltzain osoa, Donostian, 78 urte zituela. Oiartzunen jaioa, 1927. urtean. Oso gaztetandik sentitu zuen Juan Mari Lekuonak literaturarekiko zaletasuna. Orixe, Lauaxeta eta Lizardirenak izan ziren haren poesiaren lehendabiziko influentziak. Hamar bat urte idatzi barik izan ondoren, alderik lirikoena alde batera utzi eta bigarren fase batean sartzen da Lekuona poeta, eta Gabriel Aresti deskubritzen du: Haren eraginez, batez ere, hasten da poesia sozial eta existentziala egiten. Ordukoa da bere lehendabiziko liburua, *Mindura gaur* deitutakoa. 1953an, euskaltzain urgazle izendatu zuen Euskaltzaindiak eta 1987an, berriz, euskaltzain oso. Urte askotan zehar, 1989az geroztik, Euskaltzaindiaren Gipuzkoako ordezkaria izan zen, 2005eko maiatzera arte. Literatura Ikerketa eta Herri Literatura batzordeetako burua ere izan zen 2005 arte.

### **Federico Barrenengoa, euskaltzain ohorezkoa**

Abenduaren 30ean hil da Federico Barrenengoa, euskaltzain ohorezkoa, 89 urte zituela. Federico Barrenengoa Arberas, Amurrión (Araba) jaio zen, 1916ko urriaren 18an. Euskaldun berria zen eta AEKn eta Ikastolen munduan ibilia, beti ere euskararen alde lan eginez. Toponimian eta Onomastikan aditua. Ikerketa-lan asko egin zuen, Aiarako toponimiaz bereziki. Amurrioko euskal toponimia berreskuratzeko eratu zen lehenbiziko batzordeko kidea izan zen eta gaixotu arte, parte hartu zuen, Euskaltzaindiko Onomastika batzordearekin batera, herri horretako toponimia finkatze-lanetan. 2004ko azaroaren 26an, ohorezko euskaltzain izendatu zuen Euskaltzaindiak.

## I.6. HILBERRI-TXOSTENAK

Apirilaren 22an, Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian, ageriko bilkura egin du Euskaltzaindiak. Bertan, omenezko hilberri-txosten hauek irakurri dira:

### **Jose Mari Larrarte**

Euskaltzain ohorezkoa (Bidania, 1926-2004). Omenezko txostena Jose Antonio Mujikak egin du.



*Gipuzkoako Foru Aldundian, hilberri-txostenak irakurtzen, 2005-I-22an. Ezkerretik eskuinera: Andres Urrutia, Xabier Kintana eta Jose Antonio Mujika.*

### **Jose Garmendia**

Euskaltzain urgazlea (Zaldibia, 1925-2005). Omenezko txostena Jose Luis Lizundiak egin du.

Uztailaren 21ean, Irisarriko “Denen Etxean”:

### **Pierre Duny-Pétre**

Euskaltzain urgazlea (Donibane Garazi, 1914 – 2004). Omenezko txostena Jean Haritschelharrek egin du, Francisco Laphitz eta Jean-Pierre Arbelbideren omenezko ekitaldiaren barnean.



## I.7. IZENDAPENAK ETA ORDEZKAPENAK

### Lazarragaren eskuizkribuaren aurkezpena

Otsailaren 4an, Joan Perez Lazarragaren eskuizkribuaren faksimilearen argitalpena aurkeztu du Gipuzkoako Foru Aldundiak Zalduondon, Lazarraga Jauregian eginitako ekitaldian eta, beste erakunde eta elkarte batzuen artean Euskaltzaindia ere gonbidatua izan da. Andres Urrutia, euskaltzainburua ere, mintzatu da ekitaldian.

Jakina denez, Gipuzkoako Foru Aldundiak du jatorrizko eskuizkribuaren jabetza eta, haren izenean, Joxe Juan Gonzalez Txabarri ahaldu nagusiak faksimilearen ale zenbakidun bana eman die bertaratu direnei. Andres Urrutiarekin batera, Xabier Kintana, Jose Luis Lizundia, Henrike Knörr eta Andres Iñigo Zuzendaritzako kideak ere han izan dira, baita Piarres Xarritton euskaltzaina, Juanjo Zearreta kudeatzailea, Pello Telleria idazkariordea eta Amaia Okariz Prentsa arduraduna ere. Mikel Gorrotxategi, Pello Esnal, Lourdes Otaegi eta Joxe Ramon Zubimendi batzorde-idazkariak ere bertan izan dira.

### Jose Mari Jimeno Jurioren bilduma osoa

Abenduaren 9an, Jose Mari Jimeno Jurioren bilduma osoaren (62 liburuki) lehendabiziko bi liburuak aurkeztu dituzte *Udalbide* Euskara Kultur Elkargoak eta *Pamiela* argitaletxeak, Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokan; Andres Iñigo Nafarroako ordezkaria izan da bertan.

### Jose Anjel Iribarren omenaldian

Maiatzaren 31n, Zarautzen egindako ekitaldi batean, futbolaria atezain izandako Jose Angel Iribarrek «Gipuzkoako Ohorezko Intsignia» jaso du, kirol esparruan euskararen erabileraren eta normalkuntzaren alde egin duen lanagatik. Iribarrek, besteak beste, bere omenezko partidaren bildutako diru guztia kirolezko euskal hiztegi bat egiteko eskaini baitzuen. Omenaldira Jose Luis Lizundia, diruzaina eta Juanjo Zearreta, kudeatzailea, joan dira, Euskaltzaindiaren izenean. Izan ere, aipatutako ohorezko partidak lotura zuzena izan zuen Euskaltzaindiaren abian jarri zuen *Bai Euskarari* kanpainarekin: kanpaina horren azken ekitaldia San Mames-en egin zen, 1978. urtean, eta bi urte geroago, *Bai Euskarari* kanpaina antolatzen aritu ziren guztiek, Euskaltzaindia barne, Iribarren omenezko partida antolatu zuten.

### Beste ordezkapen batzuk

- Urtarrilaren 30ean, Bilboko Arriaga Antzokian, Sabino Arana Fundazioaren sari-ematean Andres Urrutia, euskaltzainburua eta Xabier Kintana, idazkaria, izan dira, Erakundearen izenean.
- Otsailaren 18an, Iruñeko Gotorlekuan, *Nafarroa Oinez 2005*eko ekitaldien barnean, antolatu den arte-erakusketan, Andres Iñigo, Nafarroako ordezkaria izan da.
- Martxoaren 2an, 14. KORRIKAREN aurkezpena egin da Euskaltzaindiaren aretoan. Euskaltzainburua eta Kudeatzailea izan dira Erakundearen izenean.
- Martxoaren 8an, Bilboko Guggenheim Museoan, *Correo Digitala*-k 2005eko web gune onenak saritu ditu. Andres Urrutia, euskaltzainburua, izan da ekitaldi horretan, Erakundearen izenean.

- Martxoaren 15ean, Nafarroako Ikastolen Elkarteak egin duen D ereduaren aldeko kanpainaren aurkezpenean, Andres Iñigo izan da.
- Martxoaren 17an, Gipuzkoako Foru Aldundian, Gipuzkoako Urrezko Domina ematea egin da. Ekitaldi horretara Diruzaina eta Kudeatzailea joan dira.
- Apirillean 5ean, Madrilan egin den “Casa de las Lenguas Ibéricas y Prehispánicas” egitasmoaren aurkezpenera Henrike Knörr joan da, Euskaltzaindiaren izenean.
- Apirilaren 19an, Euskalerra Irratia Elkarteak antolatuta, *Larreko* saria nork jasoko duen erabaki den bileran Andres Iñigo izan da, Euskaltzaindiaren izenean.
- Apirilaren 20an, Donezteben, Malerrekako Mankomunitateak eta bertako Udalak antolatu duten Jose Mari Satrustegiren omenezko erakusketa ibiltariaren aurkezpenean, Andres Iñigo izan da.
- Apirilaren 26an, Bostak Bat lantaldeak Euskaltzaindiaren egoitzan egin duen Adorez 5. *Eskola Hiztegia* aurkezpenean Pello Telleria, idazkariordea izan da, Euskaltzaindiaren izenean.
- Apirilaren 28an, San Prudentzio eta Estibalizko Andre Mariaren omenezko jaiak direla eta, Arabako Diputatu Nagusiak *Artium* Museoan egin duen harrera-ekitaldi-Dira Henrike Knörr, Arabako ordezkaria, joan da.
- Apirilaren 28an, Basauriko Udalak antolatu duen “Kultura eta Euskararen I. Gala”n Jose Luis Lizundia diruzainak ordezkatu du Akademia.
- Maiatzaren 5ean, Iruñean, I. Etxepare Literatur Sariak banatu dira, Nafarroako Udal Euskara Zerbitzuek antolatuta. Euskaltzaindiaren izenean Xabier Kintana, idazkaria eta, Andres Iñigo, Nafarroako ordezkaria, izan dira. Xabier Kintanak sariari buruzko hitzaldi laburra egin du.
- Maiatzaren 6an, Usurbilen, *Elhuyar* Fundazioaren egoitza berriaren inaugurazio ekitaldian Beñat Oihartzabal, buruordea eta Jose Luis Lizundia, diruzaina izan dira.
- Maiatzaren 16an, Bizkaiko Foru Aldundiak “Bai euskarari” sariak banatu ditu. Euskaltzainburua, Diruzaina eta Kudeatzailea joan dira.
- Maiatzaren 18an, “Ibilaldia”ren aurkezpena egin da Durangon. Jose Luis Lizundia, diruzaina joan da Akademiaren izenean.
- Maiatzaren 22an, *Sortzen*-ek -Nafarroan euskarazko irakaskuntza publikoan sektore guztiak biltzen dituen elkarteak- antolatutako Eskola Publiko Berriaren X. Festan, Andres Iñigo izan da Euskaltzaindiaren izenean.
- Maiatzaren 29an, Durangon egin den 2005eko Ibilaldira Andres Urrutia, euskaltzainburua eta Jose Luis Lizundia, diruzaina, joan dira Akademiaren izenean. *Ibilaldiak* zenbait koru eta abesbatzari saria eman die, eta Euskaltzaindiaren ordezkari Bilboko Koral Elkarteari saria ematea egokitu zaie.
- Ekainaren 11n Durangon egin den Gerediaga Elkartearen 40. urteurreneko ekitaldian, Jose Luis Lizundia, diruzaina, izan da Euskaltzaindiaren ordezkari.
- Ekainaren 15ean, Bilboren 705. urteurrena dela eta, Bilboko Udaletxean egin den ospakizun-ekitaldira Andres Urrutia, euskaltzainburua, joan da.
- Ekainaren 17an, Ediciones Mensajero-ren 90. urteurrenean, Deustuko Unibertsitatean egin diren ospakizun ekitaldietan Juan Jose Zearreta, kudeatzailea izan da Euskaltzaindiaren izenean.
- Ekainaren 17an egin den Euskal Idazleen Elkartearen egoitza berriaren inaugurazio ekitaldira Beñat Oihartzabal, buruordea, joan da Euskaltzaindiaren izenean.
- Ekainaren 18an, Arantzazun (Gipuzkoan), Arrasateko Kooperatibismoaren sortzaile izan zirenak San Silbestre Aita Santuaren Ordenako kide egin dituzte eta Zilarrezko Domina eman diete Donostiako Gotzain Joan Mari Uriartek eta Aita Santuaren Aitormena Sustatzeko Batzordeak. Ekitaldi horretara hauek joan dira: Andres Urrutia euskaltzainburua eta Juan Jose Zearreta kudeatzailea.
- Ekainaren 19an, Altsasuko Burunda pilotalekuan, 'Euskal Herriko eskolarteko XVII. Bertsolari Txapelketa' izan da. Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak gonbidaturik, Andres Iñigo joan da.

- Ekainaren 25ean, Gernikako Batzar Etxean, Juan Jose Ibarretxe lehendakariak bere karguari zin egin dion ekitaldian, Andres Urrutia euskaltzainburua izan da Euskaltzaindiaren izenean.
- Ekainaren 25ean, Zangozako Haur Hezkuntzako Ikastetxe berriaren inaugurazioan Andres Iñigo izan da.
- Ekainaren 29an, Deustuko Unibertsitatean egin den Euskal Arte Garaikideko Espezializazio Diplomako VI. Promozioaren tituluen banaketa ekitaldira Andres Urrutia, euskaltzainburua, joan da.
- Uztailaren 1ean, Varonatarren Dorrea Museo bihurtzearen inaugurazio ekitaldira Henrike Knörr joan da Euskaltzaindiaren izenean, Arabako Diputatu Nagusiak eta Valdegobiako Alkateak gonbidatuta.
- Uztailaren 5ean, Patxi Zabaleta euskaltzainak *Eneko Haritzaren hilobia* bere azken liburua aurkeztu du, Iruñean. Aurkezpen horretara Andres Iñigo joan da.
- Uztailaren 5ean, Donostiako Miramar Jauregian, Euskal Herriko Unibertsitateak antolatutako XXIV. Uda Ikastaroak - XVII. Europar Ikastaroen irekiera-ekitaldira Ana Toledo joan da, Euskaltzaindiaren izenean
- Uztailaren 14an, Frantziako Jai Nazionala dela eta, Bilbon, Thierry Frayssé Frantziako Kontsulak egin duen harrera-ekitaldira Euskaltzainburua joan da.
- Uztailaren 21ean, Donostian egin den Ikastolen Etxearen inaugurazio-ekitaldira Ana Toledo Gipuzkoako ordezkaria joan da, Gipuzkoako Ikastolen Elkarteak gonbidatuta.
- Uztailaren 26an, Bizkaiko Foru Aldundiaren Jauregian, Gregorio Monrealek prestatu duen *The Old Law of Bizkaia – El Fuero Viejo de Bizkaia* liburuaren aurkezpena hauek joan dira Euskaltzainditik: Andres Urrutia, Xabier Kintana eta Juan Jose Zearreta.
- Abuztuaren 20an, Arriaga Antzokian egin den Bilboko Aste Nagusiaren hasiera-ekitaldira Xabier Kintana idazkaria joan da.
- Irailaren 10ean, Miramar Jauregian, Aranzadi Zientzia Elkarteari Donostia Hiriaren Urrezko Domina emateko ekitaldian, Ana Toledo izan da.
- Irailaren 16an, Eusko Legebiltzarraren 25. urteurrena dela eta, Euskalduna Jauregian egin den ekitaldira, Andres Urrutia, euskaltzainburua, joan da.
- Irailaren 17an, *Irunberriko* Arangoiti ikastolaren egoitza berria estreinatu da. Ekitaldian, Andres Iñigo izan da, Euskaltzaindiaren izenean.
- Irailaren 21ean, Donostian, San Martin azoka berriaren inaugurazio ekitaldian izan da Ana Toledo, Odon Elorza Donostiako alkateak gonbidatuta.
- Irailaren 23an, Deban, Peli Markiegi idazlearen jaiotzaren mendeurrena ospatu da, eta egin diren ospakizunetan, Ana Toledo izan da.
- Urriaren 2an, Aretxabaletan ospatu den Kilometroak 2005-era Ana Toledo joan da Euskaltzaindiaren izenean.
- Urriaren 3an, Donostiako Miramar Jauregian, 2005eko Bertsolari Txapelketa Nagusiaren aurkezpena egin da, eta Ana Toledo Gipuzkoako ordezkaria joan da. Aurkezpen horretan omenaldia egin zaie Alfontso Irigoien, Juan San Martin eta Joxe Mari Aranalderi.
- Urriaren 4an, Martin Ugalde Kultur Parkeak eta *Berria*-k Martin Ugalde zenari omenaldia egin diote, Haren heriotzaren urteurrenean. Ana Toledo Gipuzkoako ordezkaria joan da Akademiaren izenean.
- Urriaren 13an, Eusko Jaurlaritzaren Donostiako Andia kaleko egoitzan, *Bidegileak* bildumako 38. karpetaaren aurkezpena egin da, Juan Mari Lekuona, Juan San Martin, Patxi Altuna eta Xabier Diharce “Iratzeder” euskaltzainen biografiak azaltzen dituen, hain zuzen. Euskaltzaindiaren izenean izan bada ere, Ana Toledo egileetako bat dela aipatu behar da: Elixabete Perez Gaztelu eta Esther Zulaikarekin batera, Juan Mari Lekuonaren eta Patxi Altunaren liburukiak egin baititu.

- Urriaren 16an, Iñigo Aritza Ikastolak antolatu duen *Nafarroa Oinez-en* ekitaldietara Andres Iñigo, Nafarroako ordezkaria, joan da.
- Urriaren 18an, Miramar Jauregian, Nestor Basterretxeari eman zaio Eusko Ikaskuntzaren eta Euskadiko Kutzaren Humanitate, Kultura, Arteak eta Giza Zientzietako 2005eko Saria. Ana Toledo eta Henrike Knörr izan dira.
- Urriaren 18an, Nafarroako Unibertsitateen V. Uda Ikastaroen amaiera ofiziala izan da Iruñean, Gayarre Antzokian. Hauek joan dira: Andres Urrutia, euskaltzainburua; Andres Iñigo, Nafarroako ordezkaria eta, Juan Jose Zearreta, kudeatzailea.
- Urriaren 22an, Irungo Udaletxean, 2005eko *Irun* Sariaren irabazleak jakinarazi dira eta Henrike Knörr joan da Euskaltzaindiaren izenean.
- Urriaren 25ean, Arabako Foru Aldundiaren Jauregian, Euskal Autonomia Estatutuaren XXVI. urteurrena ospatzeko ekitaldia egin da eta Henrike Knörr izan da Euskaltzaindiaren izenean.
- Azaroaren 3an, *Lan Onari* sariaren emate-ekitaldia izan da Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritzan, eta Henrike Knörr eta Andres Urrutia joan dira.
- Azaroaren 4an, Donostiako Miramar Jauregian, Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatuta, hitzaldia eman du Jean-Marie Rosseau jaunak, Gipuzkoaren garapen estrategikoa dela eta. Jose Luis Lizundia, diruzaina, izan da.
- Azaroaren 8an, *Diariovasco.com*-en 10. urteurrena dela eta, Donostian izan da Ana Toledo, Euskaltzaindiaren izenean.
- Azaroaren 12an, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak Zamudioko Teknologia Elkartegian antolatu duen “Ikastolak eta IKT” ekitaldira Andres Urrutia joan da.
- Azaroaren 15ean, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Ekonomi Itunaren 25. urtea dela eta, Xabier Arzallus, Carlos Garaikoetxea eta Pedro Luis Uriarte jaunei eman die urrezko domina eta Jaime García Añoveros zenaren alargunari Gipuzkoako urrezko plaka. Ekitaldi honetara Xabier Kintana, idazkaria, eta Jose Luis Lizundia, diruzaina, joan dira.
- Azaroaren 16an, Gasteizko Artium Museoan, *25 artelan* izeneko erakusketa egin da, EHUren 25. urteurrena dela eta. Henrike Knörr joan da.
- Azaroaren 21ean, Gasteizko Eskoriaza-Eskibel Jauregian, Juan San Martin, euskaltzain oso eta Ararteko ohiari omenaldia egin dio Arartekotzak. Henrike Knörr eta Jose Luis Lizundia joan dira.
- Azaroaren 23an, *Noticias de Gipuzkoa* egunkari berriaren aurkezpen ekitaldian izan da Ana Toledo.
- Azaroaren 29an, Gasteizen, Lehendakaritzan, 2005eko *Euskadi* sariak ematea izan da. Henrike Knörr joan da.
- Azaroaren 30ean, Andoainen, Martin Ugalde Foroak antolatuta, Juan José Ibarretxe lehendakariaren hitzaldia izan da: “Euskadi... etorkizunari begira”. Xabier Kintana, idazkaria, izan da.
- Abenduaren 1ean, Gipuzkoako Diputazioan egin den *Abadia* Sariaren ospakizunera, Ana Toledo joan da.
- Abenduaren 1ean, Txillida-Lekun, *Escritos* liburuaren aurkezpena eta “Zerupean Lurgainean” erakusketa izan dira. Henrike Knörr joan da.
- Abenduaren 1ean, Iruñeko Euskara Kultur Elkargoak gonbidaturik, 'Hizkuntza politikak XXI. mendeari begira' izeneko Jardunaldietan izan da Andres Iñigo, Nafarroako ordezkaria.
- Abenduaren 2an, *Lauaxeta* Saria eman dio Bizkaiko Diputazioak Ander Manterolari, eta Xabier Kintana joan da.
- Abenduaren 2an, Bilboko Erakustazoka Zaharrear, Euskararen Nazioarteko Eguna ospatu da. Andres Urrutia joan da.
- Abenduaren 2an, Gernikako Batzar Etxean, bi libururen aurkezpena egin da, Udalak, BBK-k eta Kultura Etxeak antolatuta: Jose Antonio Arana Martija, euskaltzain osoa, joan da.



- Abenduaren 3an, Bizkaiko Foru Aldundiak, *Euskararen Eguna* dela eta, sariemate ekitaldia burutu du Plaza Barrian. Andres Urrutia eta Xabier Kintana izan dira Akademiaren ordezkariak.
- Abenduaren 4an, Zaron omenaldia egin diote Jean-Pierre Arbelbideri EGAN Literatur Aldizkariak, Euskaltzaleen Biltzarrak eta Euskalerrriaren Adiskideen Elkarateak. Beñat Oihartzabal izan da, Euskaltzaindiaren ordezkari.
- Abenduaren 7an, Durangoko 40. Euskal Liburu eta Disko Azokaren inaugurazio ekitaldira Andres Urrutia eta Jose Luis Lizundia joan dira, Euskaltzaindiaren izenean.
- Abenduaren 11n, Durangon, Andolin Eguzkitza zenaren liburu bat aurkeztu da, eta Jose Luis Lizundia joan da aurkezpen horretara.
- Abenduaren 14an, Bilboko Udaletxean, Bilbotar ospetsuak izendatzea egin da. Andres Urrutia joan da.
- Abenduaren 14an, Eusko Jaurlaritzaren Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak eta Euskadiko Kutxak "2004. urteko Euskal Herritar Unibertsala" saria eman dute, eta Henrike Knörr joan da, Akademiaren izenean.
- Abenduaren 18an, Barakaldon izan da Euskal Herriko Bertsolari Txapelketaren Nagusiaren finala. Euskaltzainburuak, Xenpelar-en irudia eman dio irabazleari.
- Abenduaren 19an, *Berriozarko leku izenak* liburua aurkeztu du "Zorroka" kultura elkarteak. Andres Iñigo, liburu horren hitzaurrearen egilea ere dena, izan da ekitaldi horretan.
- Abenduaren 20an, Eusko Jaurlaritzaren Bilboko ordezkartzan, hizkuntza politikaren oinarrien eta jarraibide nagusien aurkezpena egin du Hizkuntza Politikarako Sailburordetzak. Juanjo Zearreta, kudeatzailea eta Pello Telleria, idazkariordea, izan dira Euskaltzaindiaren izenean.
- Abenduaren 28an, Lourdes Iriondoren hileta-elizkizunetan, Urnietan, hauek izan dira Euskaltzaindiaren izenean: Ana Toledo, Xabier Kintana, Henrike Knörr eta Jose Luis Lizundia.



## **II. Akademia-Jarduera**



## II. AKADEMIA-JARDUERA

### BATZORDEEN LANA

Euskaltzaindiaren akademia-jarduera batzordeetako lanen bidez garatzen da hein handi batean. Oinarri-oinarrikoa da, beraz, batzordeen eginkizuna. Hileroko osoko bilkurak arau maila ematen die batzordeetatik datozen hizkuntza-proposamenei.

Euskaltzaindiak bi sail nagusi ditu: **Iker saila** eta **Jagon saila**. Bi urterik behin berriztatzen dira sailburuak, batzordeak eta batzordekideak. Batzordekideez gain, aholkulariez ere baliatzen dira batzordeak. Lantaldeak ere sortzen dira, kasuan kasuko premien eta baliabideen arabera. Euskaltzain osoak, urgazleak eta esparru desberdinetako adituak biltzen dira batzorde horietan: unibertsitateetako eta institutuetoako irakasleak, hezkuntza munduko irakasleen euskalduntze-alfabetatze lanetan diharduten prestatzaileak, idazleak, komunikabideetako teknikariak, itzultzaileak, hiztegitzaileak, administrazioko teknikariak eta beste. Hori horrela izanik, Euskaltzaindiaren lana aberatsa eta ongi oinarritua gertatzen da, bai eta erabakiak hartzeko orduan ere.

### Bilerak

Hona hemen, Euskaltzaindiko batzordeek 2005ean egindako bileren berri:

Batzordeak	Bilerak
Hiztegi Batuko lantaldea	11
Gramatika batzordea	10
Dialektologia-Atlasa batzordea	15
Onomastika batzordea	17
Exonomastika azpibatzaordea	3
Herri Literatura batzordea	10
Literatura Ikerketa batzordea	9
Euskara Batuko batzordea	(*)
Jagoneko <i>Corpus</i> batzordea	12
Jagoneko <i>Sustapen</i> batzordea	3
Argitalpen batzordea	1
Azkue Biblioteka batzordea	2
VIII. Herri Literatura Jardunaldiak	1
IX. <i>Jagon</i> Jardunaldia	1
GUZTIRA:	95

(\*) Batzorde honek ez du bilerarik egin. Batzordeko idazkaria arduratu da lanaren kudeaketaz, eta batzordekideekiko harremana, posta elektronikoz bideratu du.



## II.1. HIZTEGIGINTZA


Hizkuntza Akademia batentzako hiztegigintza oinarri-oinarrizko eginkizuna da. Euskaltzaindiak amaitua du *Orotariko Euskal Hiztegia* eta beste bi proiektu garrantzizko ditu eskuartean: *Hiztegi Batua* eta *Euskaltzaindiaren Hiztegia*.

### II.1.1 OROTARIKO EUSKAL HIZTEGIA

2005ean argitaratu zen XVI. –eta azken– liburukia: *Ut-Zuz* artekoa, 10.212 sarrera eta 1.086 orrialde dituen liburukia.



Egoitzan, **Orotariko Euskal Hiztegia**-ren bildumaren aurkezpena, 2005-XI-17an. **Ezkerretik eskuinera**: Jose Luis Lizundia, Idoia Zenarruzabeitia, Andres Urrutia, Ibon Sarasola, Josu Legina eta Javier Gogaskoetxea.



Hona hemen hiztegi osoari buruzko oinarriko datu batzuk:

Liburukia	Argitalpen urtea	Edukia	Sarrerak	Orrialdeak
I	1987	<i>A-Ama</i>	3.882	902
II	1989	<i>Ame-Asd</i>	4.807	808
III	1989	<i>Ase-Bapuru</i>	4.420	850
IV	1990	<i>Bar-Berp</i>	3.833	827
V	1992	<i>Berr-Daf</i>	5.968	786
VI	1993	<i>Dag-Erd</i>	7.976	822
VII	1994	<i>Ere-Fa</i>	7.752	798
VIII	1995	<i>Fe-Gub</i>	8.172	854
IX	1996	<i>Gud-Jab</i>	9.652	872
X	1997	<i>Jad-Kop</i>	9.777	782
XI	1998	<i>Kor-Maj</i>	9.463	874
XII	1999	<i>Mak-Oal</i>	9.552	932
XIII	2001	<i>Oam-Peb</i>	7.825	922
XIV	2002	<i>Ped-Sua</i>	10.066	906
XV	2004	<i>Sub-Usu</i>	12.630	1.006
XVI	2005	<i>Ut-Zuz</i>	10.212	1.086
			125.987	14.028



### II.1.2 EUSKALTZAINDIAREN HIZTEGIA

*Orotariko Euskal Hiztegia* amaitu ondoren, Akademiak euskara-euskara hiztegia egitea erabaki du. Hiztegi horren oinarria Euskaltzaindiak onartua duen Hiztegi Batua izango da, lehen itzulian argitaratutako hitzak.

Hiztegi hori gauzatzen hasteko baliabideak ziurtatu bitartean, Hiztegi hori aberasteko baliagarriak izango diren sarrera berriak ikertzen aritu da lantaldea, oinarritzat *Orotariko Euskal Hiztegia* hartuz. Sarrera berriak ikertu dira edota lehengoak osatu eta eguneratu.

#### **Osatze-lana**

Urtean zehar, A - As tartea osatu eta eguneratu da.

#### **Zuzenketak**

A – An zerrendaren testua zuzendu da. Zuzenketa-lanok epeka egin dira (*ikus eranskina*):

- a) Adibideen zuzenketa (hiztegiaren gorputz nagusia osatzen duten testu eta adibideak).
- b) Sarrera-buruak (euskalki-markak, hitza jasotzen duten hiztegiileen aipuak, etab.).
- c) Koordinazioa eta zuzenketa.
- d) Zuzenketa filologikoa.

### II.1.3. HIZTEGI BATUA

*Orotariko Euskal Hiztegia* deskribatzailea eta historikoa den bezala, *Hiztegi Batua* hiztegi arauemailea dugu.

Euskaltzaindiak arlokako eta zatikako zenbait hiztegi onartuak zituen, gai desberdinen inguruan: *Batasunerako hiztegia*, *Matematika hiztegia*, *Merkatalgo izendegia*, etab. Hiztegi hauez gainera, Akademiak nahitaezkozat jo zuen euskara batuaren oinarritzko hiztegia osatzea. Horretarako sortu zuen 1992an Hiztegi Batuko batzordea. Euskaldunak eguneroko bizitzan gehien erabiltzen dituen hitzak finkatzea da xedea, beti ere hizkuntzaren batasunari begira.

*Hiztegi Batua*-ren lehen itzulian forma erabilienak edota hedatuenak jaso dira. Bigarren batean erabilera urriagokoak jasotzen ari dira. Lehenengo itzulian 20.000 hitz inguru landu eta onartu dira. Bigarren itzuliak beste horrenbeste forma ditu aztergai. Batzordeak 1997an ekin zion bigarren itzuli honi. Euskaltzaindiak hitz edo forma horiek onartu, osatu eta argitaratzean, guztira 40.000 hitzetik gora izango du *Hiztegi Batuak*. Euskaltzaindiak lehen itzuliko formak, hitz-zerrendak, osoko batzarretan aztertu ondoren, arau gisa eman zituen argitara, atalez atal. Eta 2000n, liburu bakarrean, *Euskera* agerkariaren 2000ko 2. zenbakian, hain zuzen, argitaratu ziren lehen itzuliko hitz-zerrenda horiek guztiak.

#### **Hitzen azterketa**

Hiztegi Batuko lantaldeak, 1.200 forma aztertu ditu aurten. Batetik, euskaltzainek bigarren itzulikoak aztertzerakoan proposatu dituzten forma berriak lantzen eta, bestetik, lantaldeak berak konpondu gabe utziak txukuntzen jardun du.

Forma horiek lantzeko eta horiei buruzko proposamenak egin ahal izateko, erabilera idatziaren eta bestelako informazioen lekuko diren 919 txosten izan ditu esku artean lantaldeak, UZEIko prestalaneo taldeak eginak; iturri nagusitzat *Orotariko Euskal Hiztegia* (OEH) eta Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematikoa (EEBS) corpusak izan dituzte txosten horiek.

## Metodologia

Metodologiari dagokionez, lehendik zehazturiko metodologiaren argitan begiratu ditu lantaldeak forma horiek: erabilerari dagokion informazioa bilduz eta aztertuz, eta irizpide gidariak kontuan izanik eta aplikatuz.

Emaitzak edo ondorioak, berriz, bigarren itzuliko dokumentuan txertatu dira. Honela sailka daitezke direlako ondorioak:

- lehendik proposatua modu zehatzagoan edo argiagoan agertu ahal izan da batzuetan;
- besteetan hobeto formulatu da proposamena, edo egokitu beharra ikusi da, ingurukoetan harturiko erabakiekin koherentzia bilatuz;
- beste batzuetan, ordea, aurrerago jo ezinik geratu da lantaldea, auzia formulatuz baina proposamen zehatzik egin gabe, eta esku arteko informazio eta argibideak eskainiz;
- badira, azkenik, bestela aztertu eta erabaki beharrekoak, halako multzo edo taldetan bildu eta batera ikustekoak, alegia.

## Araukak

Euskaltzaindiak, urtean zehar egin dituen osoko bilkuretan, Hiztegi Batuko honako hitz-zerrenda hauek onartu ditu:

- *berrizale* - *buzuntz*
- *c* - *dvandva*

## UZEIrekiko lankidetzak

Aurreko urteetako harremani eutsiz, Euskaltzaindiak eta UZEIk lankidetzan jardun dute 2005ean ere. Euskaltzaindiak emandako diru-laguntzaren trukean UZEIk lan hauek egin ditu Akademiarentzat:



Donostian, UZEIren egoitzan, UZEIrekiko Hitzarmeneko Jarraipen Batzordearen bilera, 2005-XI-25ean. **Ezkerretik eskuinera:** Juan Jose Zearreta, Miriam Urkia, Imanol Urbietta eta Pello Telleria.

- Hiztegi Batuko lantaldeak lehendik erabaki gabe utzitako formak eta euskaltzainen oharrak direla eta:
  - a) behar bezala kontrolatu zerrenda berezi batean.
  - b) L-Z letretako aztergai berria prestatu.
  - c) K-Z letretako txostenak eta laburpenak prestatu.
  - d) aktak egin eta euskaltzainei helarazi beharreko zerrendetan txertatuz.
- Euskaltzaindiko beste batzorde edo eta lantaldeetatik etor daitezkeen informazio eskaerei erantzun.
- Euskaltzaindiak erabakiak hartu ahala, eta denei jakinarazi aurretik, erabaki horiek behar bezala txertatu zerrenda orokorrean, aurkezpen aldetik kontraesanik izan ez dadin.
- Iritzi-emailei zerrendak helarazi, haien oharrak jaso eta sistematizatu.
- Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistemakoari (EEBSri) dagokionez, interneten dagoen XX. mendeko euskararen *corpus* estatistikoa etengabe eguneratu, Euskaltzaindiak hartutako erabakien arabera eta lantaldearen hileroko bileretako proposamenekin.



## II.2. GRAMATIKA

Gramatika batzordea 1980an eratu zen eta orduz gero ari da euskal gramatikari buruzko gaiak aztertzen. 1984tik 2005era bitartean bederatzita liburu kaleratu ditu, *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak* sailean.

Batzordea *Menderakuntza* aztertzen ari da. Gramatika arlo honek dituen bi atal nagusietarik (aditz jokatuaz baliatzen diren perpausak eta aditz jokatu gabeaz baliatzen direnak) bigarrenari ekin dio aurten batzordeak.

### ***EGLU VI (Mendeko perpausak 2) liburua argitaratu***

Ekainaren 9an, EGLU-Viren aurkezpena egin da egoitzan, *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak VI (Mendeko perpausak 2)* liburukiarena. Menderakuntzari eskainitako bigarren liburukia da hau. Honako mendeko perpaus aditz jokatudunak aztertu dira liburuan:

- baldintzazkoak
- denborazkoak
- kausazkoak
- moduzkoak
- helburuzkoak
- kontzesiozkoak



Egoitzan, EGLU-Viren aurkezpena, 2005-VI-9an. **Ezkerretik eskuinera:** Andres Urrutia eta Pello Salaburu.

### **EGLU VII (Mendeko perpausak 3) liburua lantzen hasi**

Menderakuntzari buruzko hirugarren liburukiak (perpaus aditz jokatugabeei buruzkoak) izango dituen txostenen zerrenda egina du batzordeak eta erabakita dago horietako bakoitza zein batzordekideek burutuko duen.

“Denborazko perpausak” txostenaren lehenbiziko idatzaldia aztertzen jardun du batzordeak.

### **Batzordearen 25. urteurrena**

Batetik, 25 urte bete dira Euskaltzaindiaren Gramatika batzordea sortu zela eta, bestetik, *EGLU VI (Mendeko perpausak 2)* argitaratu dela kontuan izanik, Gramatikaren inguruko Jardunaldia antolatu du batzordeak, ekainaren 9an, Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan. Bi hitzaldi hauek irakurri dira:

- Jose Antonio Mujikaren hitzaldia: “Gramatika batzordeak 25 urte”.
- Itziar Lakaren hitzaldia: “Gramatikaren izaera eta deskribapena”.

### **Erdarazko egituren kalko okerrak lana aztertu**

2004ko abenduan hasi zen batzordea Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak Euskaltzaindiari bidalitako lan hori aztertzen eta eztabaidatzen, eta 2005eko urtarrilean bukatu da lan hori. Bi alderdi izan ditu lanak:

- Lanari buruz Gramatika batzordeak irizpena prestatzea.
- Puntuz puntu egin dizkio batzordeak ohar zehatzak txostenari.

### **Hizkuntza kontsultak**

Ohi bezala, batzordea, JAGONET zerbitzuaren bidez jaso diren galderei erantzuten aritu da. Hona hemen Gramatika batzordeak eztabaidatutako galderetako batzuk:

- Aditzoin batzuen formaz: *pitz/piztu, hotz/hoztu*.
- *Antzeman* aditzaren erregimena.
- *Bata bestea / bata bestea maite dute*.
- Bergara aldeko *iliñian, jausiñian, apurtuiñian* nola idatzi beharko liratekeen.
- *Bost ikasleetako / ikasleetatik bat; bost ikasletako / ikasletatik bat. Bost ikasle-atariko bat*.
- *-eLARIK* menderagailuaren erabilera batez: *Leihotik erori zen, hanka hautsi zue-larik*.
- *Espero dut etortzea / etorriko dela*: balizko desberdintasunez.
- *Gelan erretzea daukazue* egituraren zuzentasuna.
- *GurasoeTATIK seme-alabenGANA transmiti daiteke begien kolorea...*
- *honantzaxeago, horrantzaxeago.. / honantzxeago, horrantzxeago, harantzxeago...*
- *Munduan zeharreko bidaiak / aurrera begirako proposamenak* egituren zilegitasuna.
- *Norekiko / Norenganako-ren* arteko desberdintasunak.
- *Nork arraio...? / Nor arraiok...?*
- *Ohartarazi* aditzaren erregimena.
- *-tzeko / -tzearren*: zer duten berdin, zer desberdin.
- Zenbaki hamartarrak nola irakurri behar diren.
- *zeri egokitu / zertara egokitu*.

## II.3. DIALEKTOLOGIA

### Euskararen Herri Hizkeren Atlasa

Galdeketa puntuen sarea, galdesorta eta lan metodologia finkatu ondoren, 1986an probak egin eta 1987an hasi zen Euskaltzaindia inkestak egiten. 145 herri hautatu ziren galdeketarako:

- Euskal Autonomia Erkidegoan: Araban herri 1, Bizkaian 36 eta Gipuzkoan ere 36.
- Nafarroako Foru Erkidegoan: 27 herri.
- Iparraldean: Lapurdi 15, Nafarroa Beherean 18 eta Zuberoan 12.

Inkesta-leku bakoitzean 2.857 itaun egin ziren: 2.162 lexikoaz, 596 morfologiaz (336 izen morfologiaz eta 260 aditz morfologiaz), 62 sintaxiaz eta 37 fonetika sintaktikoaz. 145 herri horietan eginiko inkestekin 2.400 zinta grabatu ziren. Euskaltzaindiak bildurik dituen grabazioak 4.000 orduetik gora dira.

Egitasmoaren helburua galdera horiekin atlas bat osatzea da, hots, inkestaren ondorioei dagozkien mapak eratzea eta jendearen eskuetan jartzea.

### Atlasgintza

Atlaseko lantaldeak 2005ean izan dituen lan eremuak hauek izan dira:

- inkesten datuak base automatizatuan sartzen jarraitzea
- datuak lantzea, datu-basea prestatuz eta mapak editatuz
- hori guztia, programa informatiko berria erabiliz.

### Laugarren koadernoko inkesten datuak sartu

2005. urtean 47 inkesta informatizatu dira:

Batetik, 4a atala informatizatzen amaitzeko falta ziren azken bi herriak informatizatu dira:

- Zuberoa (2): Montori eta Santa Grazi.

Bestetik, 4b ataleko datuak sartu dira:

- Bizkaia (8): Fika, Larrabetzu, Laukiz, Leioa, Mañaria, Mungia, Sondika eta Zollo.
- Gipuzkoa (21): Amezketan, Asteasu, Beizama, Deba, Donostia, Eibar, Elduain, Errezil, Ezkio-Itsaso, Getaria, Ikaztegieta, Lasarte, Legazpi, Mendaro, Orexa, Orio, Pasaia, Tolosa, Urretxu, Zegama eta Zestoa.
- Nafarroa (4): Alkotz, Arbizu, Luzaide eta Urdiain.
- Lapurdi (1): Urketa.
- Nafarroa Beherea (2): Ezterenzubi eta Isturitze.
- Zuberoa (9): Altzai, Altzürükü, Domintxaine, Larraine, Montori, Pagola, Santa Grazi, Sohüta eta Urdiñarbe.

## **Datuak landu**

Arlo honetan urrats hauek egiten dira: lehenik mapak egin, berrikusi eta zuzendu; eta ondoren, datuak elaboratu eta mapen eta datu-basearen azterketa egin.

Bigarren liburukiko 13-14-15 gaitan azken zuzenketak sartu dira. Bestalde, erantzun onartuen oharren gainbegiraketa tipografikoari ekin zaio; 10-12 gaiak begiratu dira.

Bigarren, hirugarren eta laugarren liburukietako mapak amaitu ondoren batzordekideen oharretan bildutako zuzenketak ere burutu dira. Egitasmo arduradunen azken onepena baino ez da falta argitaratzeko prest izateko.

Bosgarren liburukiko prestaketa-lanak, programa informatiko berria instalatu bezain laster hasi dira. Liburuki honetan izenaren morfologiari dagozkion 245 galdera prestatuko dira (galdesortako 86, 87 eta 88. gaiak). Galderotan deklinabide kasu guztiak eta adjektiboari dagozkion galderak lantzen dira. Liburukiaren lehen 111 itaunak prestatu dira.

## **Datuen garraioa**

Sistema informatiko zaharrear prestatutako materiala programa informatiko berrira garraiatzeko prozedura ere abian jarri da. Informatika Zerbitzuruak prozedura automatizatua prestatu du sistema zaharretik berrira datuak eramateko eta materiala garraiatzeari ekin zaio, lehenengo bi liburukietako datuak garraiatu dira.



## II.4. ONOMASTIKA

Onomastika batzordea 1972an sortu zen, lehendabizi “Herri eta Herritarren Izenen batzordea” izenarekin. 1981ean, Loiolako II. Barne Jardunaldietan batzorde guztien organigrama finkatu zenean, oraingo izena eman zitzaion batzordeari.

Batzorde honek ponte-izenak, deiturak, leku-izenak eta exonimo edo kanpo-izenak aztertzen ditu; alegia, izendegi ororekiko ikerketa finkatze, gainbegiratze, irizpen eta ziurtagiri-emate edota aholkularitza lanetan dihardu.

### **Euskal Deituren Izendegia osatu**

*Euskal Deituren Izendegia* 1998an argitaratu zen. Liburu horretan agertzen ez diren beste 45 deitura finkatu dira batzordean 2005ean zehar.

### **Ponte izendegia osatu**

*Ponte izendegia / Diccionario de nombres de pila / Dictionnaire des prénoms* liburua 2001ean argitaratu zen. Liburuki horretan agertzen ez diren 46 pertsona-izen finkatu dira batzordean 2005ean.

### **Toponimia-lanak gainbegiratu**

- Andoaingo toponimia aztertzeari ekin zaio.
- Antzuolako toponimiaren aztertze-lana amaitu da.
- Bermeoko toponimia-lanaren egoera eta irizpideak aztertu ditu batzordeak.
- Erandioko Udalarekin hitzarmena sinatu du Euskaltzaindiak, Erandioko toponimoak eta herriko ageriko hizkuntza-paisajea normalizatzeko.
- Lezamako toponimiari buruzko azterketa egin da.
- Zeberioako mapa egiteko laguntza eman zaio *Orbela* Elkarteari, horretarako bi batzordekide izendatuz.

### **Herri-izendegiak eta eskualdeak**

Batetik, Bizkaiko herri-izendegiko 237 izen onartu ditu batzordeak: Durangaldeko 29 herri- eta herritar-izen, Arratia eskualdeko 22, Orozko eskualdeko 4, Lea-Artibai eskualdeko 25, Busturialdeko 39, Mungialde eta Uribe Kostako 40, Txorierrri eta Uribe eskualdeetako 34 eta Enkarterri eskualdeko 44. Bestetik, Euskal Herriko 53 eskualde-izen onartu dira.

### **Udalen kontsultak**

Lan hau, EUDELekin (Euskadiko Udalen Elkartearekin) Euskaltzaindiak egina duen hitzarmenari esker gauzatu ahal izan da.

Herri-, auzo-, kale-, industrialde-, baserri-, baseliza- eta etxalde-izenez herri hauetako udalei erantzun zaie idatziz edo bertara joanez: *Aiara, Aiegi, Ametzaga (Asparrena), Arabako Casablanca industrialdea, Arama, Azkoitia, Bastida, Berango, Berriobeiti, Berriz, Guardia, Biloda, Bortziriak, Deierri, Donostia, Eskoriatza, Estellerria, Gaubea,*

Gillarte, Iñurrieta, Komunioi, Lantziego, Lasarte-Oria, Marieta-Larrintzar, Oion, Ondokolanda (Santa Eulalia), Urbina Basabe, Urizaharra, Urrotz Hiria, Villabuena, Zangoza, Zigoitia eta Zurbano / Zurbao. Guztira, 134 izen finkatu dira.

### **Erakunde eta elkarte batzuen kontsultak**

Erakunde hauei erantzun zaie: Andiamendiko Mankomunitatea; Bizkaiko Foru Aldundia; Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila; Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila; Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lan Saila; Nafarroako Parlamentua eta Euskal Irrati Telebista.

### **Banakako kontsultak**

Lehenago aipatu diren pertsona-izen eta deiturez gain, herritarrek zuzenean (*internet* bidez, gutunez eta ahoz) egindako kontsultei ere erantzun zaie.

### **Araugaiak prestatu**

- Exonomastika azpibatzerdeak “-erri(a) osagaia gaurko toponimian” deituriko araugaiak prestatu du eta Euskaltzaindiari aurkeztu. Euskaltzaindiak, apirilko batzarrean onartu du Arau bezala.
- “Antzinateko hirien euskal izenak” zerrenda prestatu du Exonomastika azpibatzerdeak eta abenduko batzarrean Euskaltzaindiari aurkeztu.
- “Euskal Herriaren auzo-eskualdeetako herri-izenak” (*Bearno* eta *Landak*) araugaiak aztertzen hasi da Exonomastika azpibatzerdea.

### **Web orria eguneratu**

Onomastika arloko izenak kontsultatzeko *Interface* berria diseinatu da eta, leku-izenen alorra eguneratu ondoren, web gunean datuak bilatzeko bidea aldatu eta erraztu egin da.

### **Biltzarrak eta Jardunaldiak**

1. Euskal Genealogiari buruzko Jardunaldiak. Apirilaren 18an eta 19an, “Euskal Genealogiaz” izenburuko Jardunaldiak egin dira Euskaltzaindiaren egoitzan, Nevada-Renoko *Center for Basques Studies* zentroak eta Akademiak antolatutakoak. Renon, Euskal Genealogia deituriko proiektua abian jartzeko asmoa dute, hau da, Estatu Batuetako euskaldunen datu-base biografikoa; zenbait aditu bildu dira bi egunotan, egitasmo horren nondik norakoak aztertzeko. Jardunaldi horietan, Euskaltzaindiko Onomastika batzordeko lau kide izan dira.
2. ICOS Nazioarteko Biltzarra. Pisan, abuztuaren 28tik irailaren 4ra bitartean egin da ICOSen XXII. Biltzarra (ICOS: *International Council of Onomastic Sciences*), eta Onomastika batzordeko kide hauen txostenak aurkeztu dira:
  - Patxi Salaberri: “Nicknames, origin of some of the family names in Basque”. Erdi Aroan erabiltzen ziren goitizenak euskaraz nola deitura bihurtu diren (*Andia, Gorria...*).
  - Henrike Knörr: “Satznamen dans la toponymie du Pays Basque”. Satznamen-ak aztertzen dira, hots, esaldiz osatutako toponimo euskaldunak, *Euridakarrena*, adibidez.
  - Jose Luis Lizundia: “La normalisation onomastique à Euskal Irrati Telebista” (*EiTB*). Euskal Irrati-Telebistan onomastikaren normalizazioa nola gauzatzen ari den.
  - Mikel Gorrotxategi: “La répression et la traduction des noms sous la dictature de F. Franco”. Euskarazko pertsona-izenen bilakaera aztertzen da, II. Errepublikatik hasi eta Francoren diktaduran zehar.

## Euskal Corpus Onomastikoa (ECO)

Egitasmo honen helburua, euskarazko izen propio edo berezien ahalik eta *corpus* oso-ena biltzea da. Horretarako datu-base bat diseinatu da eta datuak jasotzen hasi.

Abiapuntua, *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza* bildumak (59 liburuki) jasotzen dituen leku-izenak izan dira eta horietan osatzen dute datu-basearen atalik handiena (100.000 leku inguru), nahiz eta etorkizunean Euskal Herri osoko leku-izenak jasotzeko asmoa dagoen. Leku bakoitzaren izen arautuarekin batera, dokumentazioan nahiz ahozko bilketetan jasotako erak ere gorde nahi dira datutegian.

2005. urteko ekitaldian, Nafarroako bildumako datu-baseak zituen zenbait gabezia osatu dira, besteak beste, ahozko informatzaileen datuak (900 inguru). Honez gainera, Euskaltzaindiak eman dituen arau nahiz irizpenetako izen bereziak ere jaso dira, toponimiarri dagozkionak (Euskal Herriko nahiz kanpoko lekuak), ponte-izenak eta euskal deiturak eta Akademiak argitaratu dituen beste zenbait izendegitan kontsultagai daudenak. Datutegi hau abian jartzeak, Euskaltzaindiaren *web* orrian dagoen informazioa eguneratzeko bidea azkartu du dagoeneko. Era berean, Onomastika batzordeko lan-tresna ere bilaka dadin aurreikusten da.

Egitasmo hau, Nafarroako Gobernuak Euskaltzaindiarekin sinatua duen hitzarmenean jarri dituen baliabideei esker gauzatu ahal izan da.

## Gasteizko Toponimia lantaldea

Euskaltzaindiak Gasteizko Udalarekin sinatutako hitzarmenari esker, lau ikerlariz osaturiko lantaldeak dihardu, Akademiak Gasteizen duen ordezkartzan, Udalbarrutiaren toponimia biltzen eta finkatzen, ondoren argitaratzeko.

Hau dela eta, lehen liburukiaren argitalpenari begira, edizio lanetan jarraitu dute iker-tzaileek. Gasteiz hiriko kalei buruzko informazio berria edizio honetan sartuko da. Kartografiaren aldetik, *Malizaeza* azpieskualdeko herri bakoitzari dagokion mapa egin da, eta urteka sailkatutako Gasteiz hiriko planoak, 1825–1848, 1854–1875, 1887–1892, 1911–1925 eta 1929–1936 urteei dagozkienak, hain zuzen ere. Informatika arloan, datu-base berria hasi da programatzen, ondoren, orain arte jasotako erregistroak (400.000 inguru) sistema berri batera eramateko. Orain arte jaso den informazioa baliagarria izan da, zenbait tokitako kale-izenei buruzko eskariei erantzuteko ere.



## II.5. LITERATURA

Euskaltzaindiko Literatura arloa bi sail nagusitan ari da lanean. Batetik, herri literaturaren adierazpen desberdinak aztertzen dira, batez ere bertsolaritzatik kanpo dauden beste generoak. Bestetik, euskal literaturaren hiztegia lantzen ari da: hitz zerrendaz gain, literaturako hitz garrantzitsuenen azalpenak emango ditu hiztegi horrek, maila eta luzera desberdineko txostenak eskainiz. Helburua seiehun inguru txostenez osatutako hiztegia eskaintzea da.

Herri Literaturako batzordekoek parte hartzen dute, baita ere, hango eta hemengo antolabideetan, herri erakundeek Euskaltzaindiaren laguntza eskatzen badute, hala nola sari-ketetako epaimahaietan, sari banaketetan eta hitzaldiak ematen. Bestalde, Literatura Ikerketa batzordeak parte hartzen du autore ospetsuen omenaldietan, omendutako pertsonen buruzko ikerketa txostenak eginez.

### II.5.1. HERRI LITERATURA

#### VIII. Herri Literatura Jardunaldiak

Azaroaren 24an eta 25ean egin dira VIII. Herri Literatura Jardunaldiak, Donostian, “Koldo Mitxelena Kulturunea”n. Gaia: *Herri-prosa eta ahozkotasuna*.

Hitzaldi hauek irakurri dira:

- Azaroaren 24an, Bernardo Atxaga, euskaltzain urgazle eta idazlea: “Ahozkotasuna euskaldunei buruzko Ipuin Orokorrean”.
- Azaroaren 25ean, Pello Esnal, euskaltzain urgazle eta Herri Literatura batzordeburua: “Herri-prosa: oinarri eta bide”.



Donostian, Koldo Mitxelena Kulturunean, VIII. Herri Literatura Jardunaldiak, 2005-XI-25ean. **Ezkerretik eskuinera:** Jose Mari Iriondo, Pello Esnal, Andres Urrutia eta Joxe Ramon Zubimendi.

### **Batzordea berriztatu**

Euskaltzaindiak, bere XIV. Barne Jardunaldietan egin dituen izendapenen ondorioz, aldaketa hauek gertatu dira batzordean:

- Pello Esnal, batzordeburu
- Jabier Kaltzakorta, idazkari, eta
- Patziku Perurena batzordekide berria.

### **Batzordekide biren heriotza**

Urte luzez batzordekide izan diren bi pertsona hil dira: Juan Mari Lekuona, euskaltzain osoa, eta Jose Mari Aranalde, euskaltzain urgazlea.

## II.5.2. LITERATURA IKERKETA

### Literatura Terminoen Hiztegia

Azken egokitzapena egiteko, testu guztiak helaraziak zitzaizkien batzordekideei eta, hiztegi horretarako txostena idatzia dutenek testuak berriz aztertu dituzte eta oharrak aurkeztu batzordeari. Era askotakoak izan dira oharrak: ohar formal eta estilozkoak, lexikoari buruzkoak, onomastikakoak (izenak eta deiturak), sarreraren itzulpenari buruzkoak, ortotipografiazkoak: letra-mota eta antzekoak, bibliografia osatzekoak, testuen izenburuak, definizioak osatzekoak eta hitzaurrea finkatzekoak.

Egina dagoen hiztegiaren testu osoari azken hizkuntza-orraketa egin beharra ikusi du batzordeak, eta urte bukaera aldera batzordekide bati eman zaio zuzenketa-saio sistematikoa egiteko enkargua.

### Esteban Urkiaga "Lauaxeta"ren omenaldia

Batetik, uztailean, Euskal Herriko Unibertsitateak Mungian antolatu duen Uda Ikastaroan parte hartu dute batzordekide batzuk, Lauaxetari buruzko hitzaldiak emanez.

Bestetik, 2005eko urriaren 21ean batzordea Mungian izan da, hileko bilera eginez. Egun berean, iluntzean Euskaltzaindiak eta Mungiako Udalak egin duten Lauaxetaren omenezko ageriko bilkuran, Xabier Altzibar batzordekideak hitzaldi hau eman du: "Lauaxeta eta *Euzkadi* egunkariaren euskal atala".

Eta Paulo Iztueta irakasleak: "Jesuiten pedagogiaren eragina Lauaxetarengan".

### Epaimahaikideak proposatu

Literatura-sari hauetan epaimahaikide izateko izen-proposamenak egin dizkio Euskaltzaindiari batzordeak.

Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak eta Euskaltzaindiak 2005ean antolatu dituzten sari hauetan:

- Txomin Agirre eleberria
- Toribio Alzaga antzerkia
- Felipe Arrese Beitia olerkia
- Mikel Zarate saioa
- Gazteentzako Azkue Saria: A eta B arloak.

Kultura Ministerioak 2005ean antolatu dituen Sari Nazionaletan:

- Olerkia
- Narratiba
- Saiakera
- Antzerkia
- Haur Literatura





### II.5.3. SARIKETAK

#### Eleberri, antzerki, olerki eta saiakera sariak

Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak eta Euskaltzaindiak elkarrekin antolatzen dituzten literatura-sarien 2005eko irabazleak honako hauek izan dira:

- *Txomin Agirre* eleberri saria: eman gabe utzi da.
- *Toribio Alzaga* antzerki saria: **Santxa Kondesa**. Aizpea Goenaga Mendiola.
- *Felipe Arrese Beitia* olerki saria: eman gabe utzi da.
- Mikel Zarate saiakera saria: **Mendebaldearen mintzo mindua**. Joseba Azkarraga Etxegibel.

Epaimahaikoak, jaun-andre hauek izan dira:

- *Txomin Agirre* sarian: Maria Jose Olaziregi, Ur Apalategi eta Ana Toledo.
- *Toribio Alzaga* sarian: Eugenio Arozena, Daniel Landart eta Patri Urkizu.
- *Felipe Arrese Beitia* sarian: Jon Kortazar, Mikel Lasa eta Lourdes Otaegi.
- *Mikel Zarate* sarian: Aurelia Arkotxa, Adolfo Arejita eta Antton Aranburu.



*Egoitzan, literatura sari nagusiak ematea, 2005-XI-22an. Ezkerretik eskuinera: Ana Toledo, Lourdes Otaegi, Jose Ramon Bilbao, Andres Urrutia, Aizpea Goenaga, Joseba Azkarraga, Adolfo Arejita eta Patri Urkizu.*

#### R. M. Azkue sariak

Euskaltzaindiak Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioarekin batera idazle gaztetxoen lanak saritzen ditu urtero. Hona hemen 2005eko *R. M. Azkue* saria irabazi dutenen berri:

Sari-mota, adina	Lan sarituak	Irabazleak	Ikastetxea eta herria
A: narrazioa 10 - 13 urte	1) <i>Lagun bat bizirako</i> 2) <i>Malkoak lehortzen</i> 3) <i>Inoiz ikusi gabeko ama</i>	Leire Perret Leire Aranburu Amets Cañizares	Xalbador (Kanbo) Institutua (Lezo) Ikasberri (Azpeitia)
A: olerkia 10 - 13 urte	1) <i>Itsasoan</i> 2) <i>Ilargi zaharra</i> 3) <i>Euri xorta</i>	Oihana Barrenquy Maialen Dagorret Anize Amestoy-Paroix	Xalbador (Kanbo) Xalbador (Kanbo) Xalbador (Kanbo)
B: narrazioa 14 - 17 urte	1) <i>Hamabi segundo, bizitza bat</i> 2) <i>Aspaldiko mendeen mendeen</i> 3) <i>Maitasuna gerra garaian</i> Accesit: - <i>Gau iluna amaitu da</i> - <i>Ez nuen diapositiba emanaldirik egingo</i>	Izar Azpiroz Emma Arestegi Amaia Elorza  Aitziber Lizardi Olatz Mitxelena	Hurtzaro (Oiartzun) Xalbador (Kanbo) Txindoki (Beasain)  Toki Ona (Arantza) Institututa (Oiartzun)
B: olerkia 14 - 17 urte	1) <i>Infernutik zerura</i> 2) <i>Urrundu gaituzten gauza guztien-gatik</i> 3) <i>Ni, zu... eta besteak</i> Accesit: - <i>Euskararen hegaldia</i> - <i>Gaur ere zure SMSrik ez</i> - <i>Errezela itxita</i> - <i>Izara artean</i>	Haritz Casabal Irati Gaztelumendi  Ainhoa Larunbe  Miren Estibaliz Vivanco Garazi Ansa Garazi Ansa Irantzu Zinkunegi	Lizeoa (Pasaia-Lezo) Hurtzaro (Oiartzun)  Institutua (Olaitz)  Botikazar (Bilbo) Usandizaga (Oiartzun) Usandizaga (Oiartzun) Floreaga (Azkoitia)



Egoitzan, 2005eko **R.M. Azkue** sariak ematea, 2006-III-14an. Sarien irabazleak, epaimahaikoak eta Andres Urrutia, euskaltzainburua.

Honako jaun-andre hauek izan dira epaimahaikide sariketa honetan:

- A mailan: Igone Etxebarria, Amagoia López de Larruzea eta Manu Lopez Gaseni.
- B mailan: Joseba Butron, Kirmen Uribe eta Jabier Kaltzakorta.

### **Bestelako sarien epaimahaietan parte hartzea**

- Urtero, Espainiako Kultura Ministerioak ematen dituen “Literatura Sari Nazionaletarako”, Euskaltzaindiaren izenean, 2005eko deialdian, parte hartzeko izendatu diren epaimahaikideak honako hauek dira:
  - “Premio Nacional de las Letras Españolas”, Adolfo Arejita.
  - Poesia arloan, Lourdes Otaegi.
  - Narrazioan, Patri Urkizu.
  - Saiakeran, Jon Kortazar.
  - Antzerkian, Mari Jose Olaziregi.
  - Haur eta gazte literaturan, Pakita Arregi.
  - Itzulpen sarian, Koro Navarro.
- Iruñeko Udalak urtero antolatzen dituen Literatura Leihaketatako epaimahaietan, ordezkari hauek izan dira 2005ean Euskaltzaindiaren izenean:
  - Euskarazko Haur Literaturan, Paskual Rekalde.
  - Egile Berriendako Literatura Lehiaketan, Aingeru Epaltza.



## II.6. EUSKARA BATUA

Euskaltzaindiak aspaldi dihardu batasungintzan. Eta batasungintza esatea eta araugintza esatea bat dira. Akademiaren lehentasunetariko bat da hiztegegintza, eta eginkizun horretan oinarritzen da Euskara Batuko batzordearen izaera. Hiztegi Batuko lantaldetik hitz-zerrendak jaso eta Euskaltzaindiaren osoko batzarrean aurkezten ditu, eta zerrenda horiei egiten zaizkien oharren eztabaida bideratu.

### **Aurkezturiko zerrendak**

Euskara Batuko batzordeak, Hiztegi Batuko lantaldetik jaso dituen zerrenda hauek gainbegiratu ditu, eta Euskaltzaindiaren hileroko osoko bilkuretan aurkeztu:

- *c - curriculum*
- *d - dvandva*
- *e - ez*
- *f - fuxina*

### **Azterturiko oharrak**

Proposamenak osoko bilkuretan aurkeztu ondoren, oharrak egiteko epea izan dute euskaltzainek hileroko. Euskara Batuko batzordeak, honako hitz-zerrenda hauei egin zaizkien 321 ohar aztertu ditu, eta erabaki-proposamenak osoko batzarretan aurkeztu, ondoren:

- *b - berriz*
- *belar - bihitzaile*
- *bihotz - byte*
- *c - curriculum*
- *d - dvandva*



## II.7. JAGON SAILA

Euskaltzaindiak sorreratik du **Jagon Saila**, bere helburuetan hizkuntzaren jagotea, zaintzea, alegia, ezarria duelako. Sail hau bi batzordetan dago banatua:

- *Corpus* batzordea euskararen *corpusa* jagoteaz arduratzen da, helburutzat hizkuntzaren kalitatea harturik.
- *Sustapen* batzordea hizkuntzaren estatusaz arduratzen da.

### II.7.1. CORPUS BATZORDEA

#### **JAGONET: kontsulta- eta aholku-zerbitzua**

2001eko martxoaren 21ean hasi zen jendaurrean lanean –Euskaltzaindiaren webgunean– JAGONET zerbitzua ([www.euskaltzaindia.net](http://www.euskaltzaindia.net)). Emandako erantzunen datu-basea ikusteko eta galderak egiteko aukera eskaintzen da:

- Galdeleku informatikoa, posta elektronikoa bidezko zerbitzu zuzena eta banakakoa da (eta pribatua galdegilearekiko). Urtean zehar 1.387 galdera jaso dira, eta horietako 1.107 galderari erantzun zaie.
- Galde-erantzunen datu-basea, emandako erantzunak bilduz osatzen doana. Une honetan datu-basea 522 galdera-erantzunez osatua da.
- Interneteko kontsultak. Urtean zehar, batetik 45.239 bilaketa egin dira datu-basean eta, bestetik, 48.836 aldiz bistaratu da JAGONETen orri nagusia.

#### **Irizpen eskabideak aztertu eta erantzuna prestatu**

##### *Euskal txerria*

Bizkaiko Foru Aldundiak irizpena eskatu dio Euskaltzaindiari etxabere eta abarren arrazen izendegiaz, eta Euskaltzaindiaren zuzendaritzak *Corpus* batzorde honen esku utzi du “euskal txerria” sor-markaren auzia. *Corpus* batzordeak irizpena eman du hizkuntzaren egokitasuna kontuan hartuz, erabilera eta izenaren egokitasunaz kasuan kasuko dekretuak dioena kontuan izanik.

##### *Laburtzapenen hiztegia*

Euskaltzaindiko Zuzendaritzak *Corpus* batzorde honen esku utzi du Eusko Jaurlaritzako Euskararen Aholku Batzordetik Akademiari iritsi zaion irizpen-eskaria: alegia, *Laburtzapenen hiztegi*ko “Euskalkien, jakitateen eta hizkuntzen atal”ean letra xehez ala letra larriz adierazi behar ote diren laburdurak eta ikurrak. Gaia aztertu ondoren, *Corpus* batzordeak irizpena eman du, bere ustez egokiena den jokaera hobetsiz.

## **Estrategia komunikatiboak**

Batzordekide batek “Estrategia komunikatiboak” izeneko lana aurkeztu du batzordean. Hizkuntzaren ikuspegi komunikatiboaren barruan kokatzen diren estrategia eta gaitasunez dihardu lanak eta *Corpus* batzordea gai horri dagozkion baliabideak aztertzen eta lantzen hasi da.



## II.7.2. SUSTAPEN BATZORDEA

### VIII. Jagon Jardunaldietako hitzaldiak argitaratu

2004ko azaroan Gasteizen egin ziren VIII. *Jagon* Jardunaldietako hitzaldiak eta txostenak bildu ondoren, *Euskera* agerkarian argitaratu dira (ik. *Euskera* 2004, 2, 803-902. orr.). Honako hitzaldi eta txostenak:

- Aurkezpena: Andres Urrutia, Jagon sailburua.
- “Gasteizko elizaren sortzea eta euskara”: Jose Luis Lizundia, diruzaina.
- “Eliza katoliko erromatarra eta euskara”: Joseba Intxausti, euskaltzain ohorezkoa.
- “Euskararen egungo egoera Gasteizko elizbarrutiko pastoral jardueran”: Emilio Pérez, Aramaioko erretorea.

Txosten horiek guztiak *separata* batean ere argitaratu dira.

### IX. Jagon Jardunaldiak egin

2005eko abenduaren 16an, Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan *Eliza eta euskara Bilboko eta Donostiako elizbarrutietan* izeneko Jardunaldiak burutu dira, egitarau honen arabera:



Egoitzan, IX. *Jagon* Jardunaldiak, 2005-XII-16an. **Ezkerretik eskuinera:** Angel Unzueta, Andres Iñigo, Andres Urrutia, Erramun Osa eta Eustasio Etxezarreta.

– Aurkezpena. Andres Iñigo, Jagon sailburuak.

Hitzaldiak:

- “Euskararen erabilera Bizkaiko elizan: irizpide nagusiak”. Angel Mari Unzueta Zamalloa. Uribe-Kosta eskualdeko bikarioa.
- “Euskararen erabilera Donostiako elizbarrutian gaur egun. Euskara idatzia eta euskara erabilia”. Eustasio Etxezarreta. Donostiako Gotzaindegian elizbarrutiko liturgiaren arloko arduraduna, euskarazko itzulpen eta argitalpen ofizialen arduraduna.
- Elkarrizketa. Erramun Osa, Sustapen batzordearen idazkaria moderatzaileak.
- Azken hitzak. Andres Urrutia euskaltzainburuak.

### **Euskararen sustapen lana**

Sustapen batzordeak, Europako Kontseiluaren txostena aztergai izan du. Txosten horrek euskara indarberritzeko langintzan proposatu dituenak Euskaltzaindiak egindako ekarpenen ildotik doazela azpimarratu da.

### **III. Erakunde Zerbitzuak**



### III. ERAKUNDE ZERBITZUAK

Aurreko atalean azaldu den bezala, Euskaltzaindiaren jarduera akademikoa batzorde eta lantaldeen bidez egiten da eta langintza horien emaitzak giza baliabide eta azpiegiturazko zerbitzuekin antolatzen eta gauzatzen dira. Zerbitzu hauek, bestalde, herritarrei nahiz erakundeei erantzuteko ezinbestekoak dira.


#### III.I. EGOITZA ETA ORDEZKARITZAK

Bilboko Plaza Barrian du Euskaltzaindiak egoitza. Bertotik eramaten dira azpiegiturazko koordinazio lanak eta hor kokatzen dira eremu honi lotuta dauden zerbitzuak: Argitalpen eta Banaketa zerbitzuak, batzordeen koordinazioa, Prentsa eta Komunikazioa, Informatika, Azkue Biblioteka eta Kontularitza. Egoitzan kokatzen da Akademiaren Zuzendaritza ere.

Erakundeei, elkarteei nahiz gizabanakakoei hurbileko zerbitzuak eskaintzeko asmoarekin, egoitzaz gainera, Euskal Herriko beste lau hiriburuetan kokatu ditu Euskaltzaindiak bere ordezkariak. Garrantzi handikoak dira jendearekiko harremanak: hizkuntzarekiko kontsultak, ziurtagiriak eta talde-bisitak, besteak beste. Hauek, bai egoitzatik eta baita ordezkarietatik bideratzen dira.

#### **Ordezkarriak**

Bilbo, Baiona, Donostia, Gasteiz eta Iruñeko bulegoetatik koordinatzen dira lurralde bakoitzean euskararekiko egiten diren ekintza garrantzitsuenak eta, hala deitua denean, Erakundearen lekukotasuna ematen da bere ordezkarien bidez. Agerpen hauek *Oroitidazki* honen I. atalean azaltzen dira.



*Egoitzan, Onomastika zerbitzuan, Mikel Gorrotxategi, 2005-XI-9an.*

#### **Jendaurreko zerbitzuak**

Bost bulegoetara etortzen diren hiritarren eskabideak eten gabe erantzuten dira, ponte-izen eta deituren ziurtagiriak eginez, gehienbat, baina baita ere toponimia eta euskararekiko beste gai ugari aztertuz. Egoitzan eta ordezkarietan 95 ponte-izen eta 220 deiturari buruzko ziurtagiriak egin dira 2005. urtean.

Bisitei dagokienez, interneten bidez, [www.euskaltzaindia.net](http://www.euskaltzaindia.net) helbidean, 175.220 bisita izan dira Euskaltzaindiaren *webgune* honetan eta egoitzan 5.511 lagun izan dira.

## Erakundearen bilerak

Bilbon egin ohi dira hileroko osoen bilkurak eta Zuzendaritzakoak, nahiz eta Donostiako ordezkartzan ere tartekatzen diren.

Aipatutako bilerez gain, Donostiako ordezkartzan bildu dira batzorde eta lantalde hauek ere: Gramatika, Herri Literatura, Literatura Ikerketa, Dialektologia-Atlasgintza, Onomastika, *Jagon* saileko Corpus eta Sustapen batzordeak eta Euskalkien lantaldea. Onomastika, Literatura Ikerketa, Dialektologia-Atlasgintza, Argitalpen eta Azkue Bibliotekako batzordeak egoitzan bildu dira. Baionako ordezkartzan, Dialektologia-Atlasgintza eta Ziordian, Onomastika batzordea.

## Zuzendaritza

Gutxienez, hilean bitan biltzen da. Kudeatzaileak eta Idazkariordeak antolatzen dituzte bilerok dagokien kargudunekin. Erakundearen gobernu, egitasmoen arta izatea eta, orobat, barne jardun-bidearen agintea eta erantzukizuna dagozkio Zuzendaritzari. Aurten 21 bilera egin ditu ondoko laukian zehazten den bezala:

Hila	Eguna	Tokia
Urtarrila	12	Donostia
Urtarrila	25	Bilbo
Urtarrila	27	Bilbo
Otsaila	4	Zalduondo
Otsaila	24	Donostia
Martxoa	17	Bilbo
Apirila	15	Donostia
Apirila	21	Donostia
Maiatza	13	Donostia
Maiatza	26	Argomaiz
Ekaina	9	Bilbo
Ekaina	23	Bilbo
Uztaila	6	Aramaio
Uztaila	21	Baiona
Iraila	9	Bilbo
Iraila	22	Altsasu
Urria	7	Bilbo
Urria	20	Bilbo
Azaroa	11	Donostia
Azaroa	24	Donostia
Abendua	9	Durango

## Batzorde eta egitasmoen koordinazio zerbitzua

Idazkariordea arduratzen da egitasmo eta batzorde akademikoen lanen jarraipenaz eta bateratzeaz. Lan hauen guztien berri ematen die Kudeatzaileari, Zuzendaritzari eta, ezarritako epeetan, dagokien Herri Administrazioei, behar diren txostenak prestatuz.

Herri Aginteekin sinatutako hitzarmenen arabera, Batzorde Teknikoekiko egitasmo-harremanak ere burutzen ditu.

## Euskaltzaindiko Informatika eta Telekomunikazio zerbitzua

Hauek izan dira informatika eta telekomunikazio arloetan 2005. urtean zehar egindako lan behinenak, alegia:

Mantenu lana. 1.051 mantenu intzidentzia gertatu dira guztira. Sailkapena:

- Laguntza teknikoa erabiltzaileei (% 39,96).
- Instalazio, hobekuntza eta konfigurazio lanak (% 21,60).
- Matxurak eta ustegabekoak (% 18,36).
- Internet zerbitzuak (% 7,99).
- Informatika-segurtasuna (% 4,66).

Informatizazio egitasmoak:

- Euskaltzaindiko informatika ekipamendua berritzea.
- Hiztegi Batua XMLratzea eta erredakzio ingurune berria garatzea (1. fasea).
- Ikastaroa jaso UEUn, segurtasun informatikoaz.
- Gordailuaren gestio informatizaturako aplikazioa.
- JAGONET zerbitzurako bilatzaile berria ezartzea *webgunean*.
- UMTS bidezko *Internet* sarbidea ezartzea Prentsa zerbitzuarentzat.
- Deustuko Unibertsitatean hitzaldia ematea EHHaren azpiegitura informatikoari buruz.
- Arabako ordezkartzaren bulego berriko telekomunikazio eta informatika azpiegitura.

## Prentsa eta Komunikazio zerbitzua

Zerbitzu honek honako helburu hauek betetzen ditu: Euskaltzaindiaren eta komunikabideen arteko loturak sendotzeko asmoz, gizarteak Akademiaren jardunaren berri izatea eta Akademiak, elkarlanean, beste erakunde eta elkarteekin egiten dituen ekintzen eta eginkizunen berri ematea.

Bestalde, euskaltzainen *curriculumak* egitea eta eguneratzea zerbitzu honi dagokio, baita *webguneko albisteak* gaurkotzea ere, Idazkariordearekin eta Informatika teknikariarekin batera. Erakundearen hileroko barnerako informazio buletina –*Albiste Orria* deritzana– egiten duen lan-taldeko kidea da, Idazkariordearekin batera.

Aurten, hauek izan dira prentsa bulego honetatik bideratutako ekintza nagusiak Euskaltzaindiaren batzarrei dagokienez:

- Urtarrilean, Bilbon, Euskaltzaindiaren Zuzendaritza berriaren kargu-hartze ekitaldia.
- Urtarrilean, Donostian, Gipuzkoako herri izendegiaren aurkezpena.
- Apirilean, Joan Perez Lazarragaren jaiotzaren laugarren mendeurrena, Larrean.
- Ekainean, Adolfo Arejita, euskaltzainaren sarrera-hitzaldia, Bilbon.
- Uztailean, Jean-Pierre Arbelbideren eta Francisco Laphitz-en omenezko Jardunaldia, Irisarrin.
- Irailean, “Ahozko euskara: dakiguna eta darabilguna“ izeneko Jardunaldiak, Uhartan.
- Irailean, *Nafarroa Oinez 2005* dela eta, Altsasun eginiko ekitaldiak.
- Urrian, Ana Toledo, euskaltzain berriaren izendapena, Mungian.
- Urrian, Esteba Urkiaga “Lauxeta”ren mendeurrena (1905-1937), Mungian.
- Azaroan, VIII. Herri Literatura Jardunaldiak, Donostian.
- Azaroan, Bilbon, *Orotariko Euskal Hiztegiaren* aurkezpena.
- Abenduan, Patxi Salaberri, euskaltzain berriaren izendapena, Bilbon.
- Abenduan, Bilbon, IX. *Jagon* Jardunaldiak.

## Aretoen erabilera

Egoitzako eta Gasteizko ordezkartzaren aretoak kultura erakunde eta elkarteei irekita izan dira euskararen inguruko gai, hitzaldi, aurkezpen, bilkura eta prentsurrekoetarako. Bilboko aretoan Bilbo Zaharra *Forum* elkarteak honako ekitaldiak antolatu ditu: Felipe Juaristi, Toti Martinez de Lezea eta Eduardo Gil Beraren hitzaldiak.

Horrez gain, honako elkarte hauek ere erabili dute aretoa: Bilbo, Galdakao, Mungia eta Ondarroako Udalek, Renoko Unibertsitateak, Bostak Bat kultura alkarteak, Udako Euskal Unibertsitateak, Topaguneak, Atenea elkarteak eta Elurnet-ek. Edurne Pasaban mendi-kirolariak, Iñigo Lamarka Arartekoak eta Xabier Amuriza bertsolariak ere saio bana eman dute.



Egoitzan, Oñatiko **Elkar Hezi** ikastetxeko ikasle-irakasleak Xabier Kintana idazkariarekin



## ORDEZKARITZAK

### GIPUZKOAKO ORDEZKARITZA

Gainontzeko bulegoetan bezala, Erakundeari azpiegitura eta jendearekiko kontsulta zerbitzuak eman dira ordezkariak honetatik eta ordezkariak Akademiaren izenean hainbat ekintzatan hartzen du parte. Aurtengo ordezkariak *Oroitidazki* honen lehen atalean aipatzen dira.

Ohienez, zenbait batzorde Donostian bildu dira bertoko azpiegituraz baliaturik: Gramatika, Literatura Ikerketa, Herri Literatura, Jagon saileko *Corpus* eta Euskalkiak. Onomastika batzordeak ere bilera bat egin du bertan eta Zuzendaritzak ere maiz egiten ditu bilerak, ordezkariak honetan.

Apirilaren 22an, Gipuzkoako Foru Aldundian, ageriko bilkura egin da, hilberri-txosten hauek irakurtzeko: Jose Mari Larrarte, euskaltzain ohorezkoarena, Jose Antonio Mujikak irakurria eta, Jose Garmendia, euskaltzain urgazlearena, Jose Luis Lizundiak.

Irailaren 20an, *Nerekin yaio nun: Txillardegiri omenaldia* liburua aurkeztu dute Euskaltzaindiak eta Euskal Herriko Unibertsitateak, Donostian. Aurkezpena honako hauek egin dute: Andres Urrutia euskaltzainburuak; Henrike Knörr, Iker sailburu eta liburuaren prestatzaileak; Ludger Mees, EHUko Euskara errektoreordeak; Txillardegik berak, eta Roger Breton "Paris 8" Unibertsitateko irakasle emerituak.

Bestalde, *Jagonet* kontsulta zerbitzua ere Donostiako bulego honetan dago kokatuta eta bertotik erantzuten dira interneten bidez heltzen diren kontsultak.

### ARABAKO ORDEZKARITZA

Erakundearen azpiegiturari dagozkion eginkizunez kanpo, azpimarratu behar da Gasteizko Udalarekin sinatutako Hitzarmenari esker bulego honetan diharduen Toponimia lantaldea eta horren inguruan sortu den lana. Arabako Foru Aldundiko Euskara Zerbitzutik, hiriburuko Udaletik, beste herri batzuetatik eta banakako ikerlarien aldetik etorritako hainbat kontsultari erantzun zaie.

Harreman ugari izan dira Gasteizko Udalarekin, kontuan hartuta azken urteotan hiri hau asko zabaldu dela eta auzo berriak sortu direla, batez ere *Zabalgana* poligonoak hartzen duen eremuan. Horregatik eskari ugari etorri dira Hirigintza Siletik, hiriko eremu ezberdinetako toponimoak aztertu eta normalizatzeko sortuko diren kalei izen egokiak jarri ahal izateko. Auzo eta poligono hauetako toponimoak aztertu dira eta erantzuna bidali:

- *Salburuko* kale berrietarako izenak.
- *Gamarra* herriko toponimoak, kaleak izendatzeko.
- *Berroztegieta* herriko toponimoak, kaleak izendatzeko.
- *Ensanche 21* eremuko zenbait kale-izen.

Beste kontsulta batzuk:

- Oiongo kaleak.
- Gasteizko erreken izenak.

## Ordezkaritzako bulegoak

Arabako Foru Aldundiak, San Antonio kalean dituen bulegoak utzi beharrean dagoela adierazi dio Euskaltzaindiari. Hori dela eta, Henrike Knörr ordezkariak harreman ugari izan ditu Foru Aldundiko Kultura Diputatuarekin eta Hirigintza Diputatuarekin.

## Barne Jardunaldiak eta ospakizunak

Gasteizko ordezkarietatik laguntza eman da maiatzean Argomaizen egin diren XIV. Barne Jardunaldiak antolatzeko eta baita Ozetan eta Larrean eginiko ekitaldietan, Joan Perez Lazarragaren heriotzaren IV. Mendeurrena (1605-2005) ospatzeko.

## Bisitak

Lurralde honetako ikastetxe, institutu eta euskaltegitako 8 ikasle-taldek bisitatu dute Euskaltzaindiaren ordezkari-tza hau, Akademiaren historia eta oraingo jardueren berri jasotzeko.

## Ordezkapenak

Arabako ordezkariak herrialde honetan egin diren kultur ekitaldietan parte hartu du, I. atalean azaltzen den bezala. Horrez gain, hiriko Alkateak deiturik, Gasteiz Hiriko Plan Estrategikoa deritzon proiektuaren barruan egindako bileretan ere parte hartu du, Euskaltzaindiaren izenean.

## NAFARROAKO ORDEZKARITZA

Ordezkaritza honetan Akademiaren azpiegiturak eskatzen dituen lanez gain, 2005. urte honetan, honako hauek azpimarra daitezke:

## OCR sistemaren bidez egindako lanak

Dokumentuak automatikoki ezagutzeko OCR deritzon sistema honen bidez, honako lan hauek egin dira aurten:

- Jose Mari Satrustegik, *Principe de Viana* aldizkarian idatzitako artikuluen irudi guztiak.
- *IKER* bildumako liburuak.



Uharte-Iruñean, Zubiarte euskaltegian, "Ahozko euskara: dakiguna eta darabilguna" jardunaldia, 2005-IX-28an. Juan Luis Goikoetxea hitzaldia irakurtzen.

## Bestelako lanak

- *Euskera* aldizkariko onomastika gaien aurkitegia egin da.
- “Euskaltzaindiaren Adierazpenak” delakoaren aurkibidea egin da.
- Nafarroako elizetako santu izenak jaso dira *Catálogo Monumental de Navarra I, II, III* liburuetatik.
- *Nafarroako Herri Izendegia* hustu da.
- Toponimiako “esamoldeak” jaso dira Azkueren *Euskalerraren Yakintza* liburutik.
- Luis Elizalderen *Toponimia Vasca* delako liburua informatizatu da.
- Euskalkien lantaldekideei bileren aktak eta deiak bidali zaizkie ordezkarietza honetatik.
- *Oinez 2005*eko gonbidapen eta egitaraua bidali da Nafarroako hainbat instituzio, ikastetxe eta kultura elkartetara.

## Ordezkapenak

*Oinez 2005*-ek eskatuta, Andres Iñigok eta Patxi Salaberrik, Jose Mari Satrustegi Nafarroako euskararen ikurra liburua prestatu dute eta ondoren honako aurkezpenetan parte hartu dute: *2005eko Oinez* dela eta, Altsasuko ikastolak antolaturik, Nafarroako Ikastolen Elkartean eta Altsasuko Iortia Kultura Etxean. Bestalde, Malerrekako Mankomunitateak eta bertako Udalak antolatu duten erakusketa ibiltariaren aurkezpenean egon da Andres Iñigo eta Iruritan hitzaldi bat eman du.

Nafarroako ordezkaria honako ekintza hauetan ere izan da Euskaltzaindiaren izenean:

- Iruñeko Gotorlekuan, *Oinez 2005*-eko Arte erakusketaren inaugurazioan.
- Nafarroako Ikastolen Elkarteak gonbidaturik, “D” ereduaren aurkezpenean.
- Zangozako Haur Hezkuntzako Ikastetxe berriaren eta Irunberrikoaren inaugurazioetan.
- Lizarran ematen den *Manuel Irujo* sari-banaketa ekitaldian.
- *Nafarroa Oinez 2005* ekitaldien aurkezpena egin da Nafarroako ordezkarietza honetan, komunikabideen aurrean. Bertan, Altsasuko Ikastolako zuzendaria ere izan da.
- *Hizkuntza politikak XXI. mendeari begira* izeneko Jardunaldietan. Ekitaldi hau, Eukara Kultur Elkargoak antolatu du.

## BAIONAKO ORDEZKARITZA

### Bilkurak

Urtean zehar hileroko egiten dira ordezkarietza honetan kudeaketa-bilerak. Jean Haritschelhar, euskaltzainburu ohiak, Beñat Oihartzabal, buruordeak, Piarres Charritton, ordezkariak eta Annie Etxeberri, ordezkarietza langileak parte hartu dute. Bestalde, martxoaren 28an, Frantziako Estatuko Elkarte-legearen arabera bulegoan egin da urteko bilera nagusia, bertako euskaltzain oso eta urgazleez gain, Andres Urrutia euskaltzainburuak eta Xabier Kintana idazkariak parte hartu dutelarik.

### Ordezkapenak

- Jean Haritschelhar izan da Uztaritzen Euskal Kultur Erakundearen Biltzar Nagusian.
- Sarako Idazleen bilkuran izan da Piarres Xarriton, Iparraldeko ordezkaria.
- Jean Haritschelharrek, Eusko Ikaskuntzak ematen duen *Lekuona Saria* jaso du, maiatzaren 21ean. Ekintza horretan Beñat Oihartzabal eta Piarres Xarriton izan dira. Xarritton jaunak sarituaren *bio-bibliografia* egin du.
- Uztailaren 9an, Jean Haritschelhar izan da Baionako Industria eta Merkataritza Ganberan *Pays Basque 2020* deituriko foruaren estreinaldian.

### **Bestelako lanak**

- Uztailaren 21 eta 22an Irisarrin egin diren J.P. Arbelbide eta F. Lapitz euskal idazleen omenezko Jardunaldiak ospatzeko, Baionako ordezkarietatik laguntza eman da prestaketa lanetan eta prentsaurrekoa eginez.
- Azken urte hauetan egin den bezala, IKAS elkarteak prestatuturiko ikas-liburuak gainbegiratu egin dira. Aurten, 6. *Transmath* liburuari, *Iguzki Lore* zientzia liburuei eta ERMEL matematika liburuei onikusia eman zaie.
- Iparraldeko toponimia. Euskaltzaindiak *Institute Geographique National*entzat egin duen toponimiaren bilketa lana, Iparraldeko euskaltzainei igorri zaie oharrak egin ditzaten.

### **Harremanak**

Maiatzaren 10ean Jean Haritschelhar bildu da Euskara Erakunde Publikoaren J.C. Hiriart jaunarekin, bi Erakundeek duten hitzarmenaz mintzatzeko.

### **D Mailako Hizkuntza Gaitasun Agiria**

Agiri hau eskuratzeko, maiatzaren 28an eta ekainaren 11n egin dira lehen deialdiko probak eta, irailaren 24an eta urriaren 8an, udazkenekoak. Denetara, aurkeztu direnetatik 77 lagunek gainditu dituzte azterketak.

### **Diru-laguntzak**

Urtean zehar, hainbat enpresak eman diote diru-laguntza Euskaltzaindiari. Hauek izan dira: Aiherrako *Eskulanak*, Hendaiaiko *Transports Salaberry* eta *Sokoa Sozietatea*, eta Arberoako San Martineko *Isturitz eta Otsozelaiko Lezeak*. Horiez gainera, 25 udalek ere diruz lagundu dute Euskaltzaindia.

## III.2. AZKUE BIBLIOTEKA

Azkue Bibliotekaren baitan bi alderdi bereizten dira: alde batetik zerbitzua, mota guzti-etako dokumentuak eskuratu, antolatu eta ikerleen eskura jartzen dituen, eta bestetik baztordea, zeinaren eginkizuna baita lan horiek zehaztea.

### III.2.1. ZERBITZUA

Bibliotekaren eta artxiboaren zerbitzu arruntez gain, ondokoak dira landu diren egitasmo nagusiak:

#### **Azkue Bibliotekaren Katalogoa**

Aurten 2.903 zenbaki berri eskuratu dira eta 2.221 sarrera berri egin dira katalogoan.

#### **Jose Mari Satrustegiren artxiboa**

2004ko uztailan sinatutako hitzarmenaren ondorioz, J. M. Satrustegi euskaltzainaren artxiboa taxutu, katalogatu eta zenbait atal digitalizatu dira 2005ean. Katalogazio eta digitalizazio lanak 2005aren barruan bukatu dira, aurreikusita zegoen bezala.

#### **Dagerre digitalizazio egitasmoa**

Aurten 16 liburu (edo antzeko dokumentu) eta 220 argazki digitalizatu dira. Digitalizazio-lan hau, erabiltzaileek egindako eskabideen arabera egin da.

#### **Digitalizazio-lan bereziak**

Modu sistematikoan, multzo jakinetan, egin diren lanak biltzen dira hemen:



*Egoitzan, Azkue Bibliotekan, Josune Olabarria, 2005-XI-9an.*

- Euskaltzaindiaren argazki-artxiboaren digitalizazioa gauzatu da. Guztira 8.005 irudi digitalizatu dira, geroago, programa informatiko berri bat instalatzean, argazki horiek *webgunean* kontsultatu ahal izateko.
- Beste horrenbeste esan daiteke *Euskera* agerkariaren (1980-2004) eta Azkue Bibliotekako mikrofilmen digitalizazioari buruz (100.000 irudi).
- Juan Carlos Guerra, Louis Lucien Bonaparte eta Anton Abadiaren artxibo eta ondareak digitalizatu dira.
- EHHaren erantzun koadernoak digitalizatu dira, guztira 725.

### **Espainiako Kultura Ministerioaren Katalogazio Arauen itzulpena**

Aurten ere zuzendariak harremanean segitu du Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailarekin, posta elektronikoz eta uztailean egin den bilera baten bidez. Horren emaitza izan dira gora-go aipatu diren bi txostenak: *Latindar egile klasiko ezagunenak* eta *Greziar egile klasiko ezagunenak* izeneko zerrendak.

### III.2.2. AZKUE BIBLIOTEKA BATZORDEA

#### **Azkue Bibliotekaren Katalogazio Erregelak**

Erregela hauek, azken hamabi urteotan batzordekide edo aholkulari izan diren guztiei igorri zaizkie, haien iritzia eskatuz. Ondoren, batzordeak hartu du erabakia. “Azkue Bibliotekaren Katalogazio Erregelaren txosten” hau hamabi bat urtez luzatu den prozesu baten emaitza da; honen bitartez katalogo informatiko bat izatea lortu da, nazioarteko erregelaren arabera, *internet* bidez kontsulta daitekeena, eta euskaraz.

#### **Latindar eta greziar egile klasikoak**

Bi txosten hauek, Eusko Jaurlaritzaren eskaera zehatz baten ondorioz landu dira, eta batzordearen bileran aurkeztu:

- Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila Espainiako Katalogazio Erregelak itzultzen ari da, eta batzorde-idazkaria itzulpen hori gauzatzen ari den taldeko kidea da. Aipatu erregeletan egile klasikoen bi zerrenda agertzen dira eranskin gisa.
- Bestetik, Euskaltzaindiaren 76. Arauan, “Latin eta greziar pertsona-izen klasikoak euskaraz emateko irizpideei buruzko erabakia”n, ez dira izen guztiak aipatzen; beraz, batzordeak falta direnak osatu ditu, aipatu Arauan ematen diren irizpideen arabera.

#### **Euskal katiximak**

Egitasmo hau, batzordeburuak urtean zehar landu du eta ondoren batzordean aurkeztu. Egitasmoaren helburua, *Bibliografia bonapartiana*-ren ildotik, euskarazko katixima guzti-guztiak sistematikoki deskribatzea da, katixima argitaratuak eta argitaragabeak katalogo bakar batean bilduz. Informazio hau emango da: katixima bakoitzaren zenbakiak non dauden, euskalkia eta argitalpen-data zehatza.





### III.3. ARGITALPENAK

#### III.3.1. ARGITALPEN BATZORDEA

Batzordearen eta Argitalpen Eragilearen gidaritzapean argitalpen liburu hauek bideratu dira 2005. urtean:

##### 1. *Euskera*, 2004, 2

Euskaltzaindiaren Batzar-Agiri, erabaki, irizpen, sari, argitalpen eta adierazpenez gain, hauek dira berariazko gaiak: Jose Luis Lizundiaren sarrera-ekitaldia; Maurice Harrieten lehen mendeurrena; VIII. *Jagon* Jardunaldiak: “Eliza eta euskara Gasteizko elizbarrutian”; Euskaltzaindiaren agerraldia Nafarroako Parlamentuan; Hitzarmenak; *Nafarroa Oinez* 2004; D Mailako Hizkuntza Agiria Iparraldean; Manex Goienetxe, Martin Ugalde eta Augustin Zubikarairi buruzko hilberri-txostenak. 598 orrialde.

##### 2. *Euskera*, 2005, 1

Euskaltzaindiaren Batzar-Agiri, erabaki, irizpen, sari, argitalpen eta adierazpenez gain, hauek dira berariazko gaiak: Euskaltzaindiko kargu-aldaketa; Euskaltzaindiaren XIV. Barne Jardunaldiak; Joan Perez Lazarragaren mendeurrena; Hitzarmenak (Nafarroako Gobernu, Iruñeko Udala, Topagunea); Jose Mari Larrarte eta Jose Garmendia Arruebarrenari buruzko hilberri-txostenak. 444 orrialde.

##### 3. *Euskaltzaindiaren ARAUAK*

Hauek dira, 2005ean zehar, 3. karpetan, XXVI eta XXVII. sortetan argitaratu diren hizkuntza-Arauak:

140. *Gipuzkoako herri izendegia.*
141. *Herri-izenak: hurrenkera eta zeinu grafikoen erabilera.*
142. *Antzinateko eskualdeen euskarazko izenak.*
143. *-erri(a) osagaia gaurko toponimian.*
144. *Hiztegi Batua: berrizale - buzuntz.*



Egoitzan, **Zaldibarko toponimia** liburuaren aurkezpena, 2005-III-9an. **Ezkerretik eskuinera**: Nerea Garitagoitia, Jose Luis Lizundia eta Alberto Errazti.

4. *Euskaltzaindiaren 2004ko Oroitidazkia / Memoria / Mémoire*

Euskaltzaindiak 2004an egindako lanen berri ematen duen argitalpena da, hiru hizkuntzatan egina. 370 orrialde.

5. *Zaldutik Zaldibarrera, toponimian barrena*

Onomasticon Vasconiae bildumaren 24. liburukia. Alberto Errazti Igartuak prestatua. Liburu hori, hurrengo erakundeon babesari esker argitaratu da: Zaldibarko Udala, Bizkaiko Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa. 800 orrialde.

6. *EGLU-VI (Euskal Gramatika, Lehen Urratsak-VI. Mendeko perpausak – 2)*

Euskaltzaindiko Gramatika batzordeak paratua. 350 orrialde.

7. *Nerekin Yaio nun: Txillardegiri omenaldia*

Iker bildumaren 17. liburukia. 31 egilek parte hartzen dute. Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Euskaltzaindiaren arteko Hitzarmenaren barnean argitaratua. 546 orrialde.

8. *Harizpeko neskaren afera*

Juan José Ispizua Hormaetxea. BBK - Euskaltzaindia: 2004ko *Txomin Agirre Eleberri* saria. 140 orrialde.

9. *40 urteak*

Pantxo Hirigarai. BBK - Euskaltzaindia: 2004ko *Toribio Alzaga Antzerki* saria. 48 orrialde.

10. *Itoti urdinaren azpian*

Aintzane Galardi Portu. BBK - Euskaltzaindia: 2004ko *Felipe Arrese Beitia Olerki* saria. 82 orrialde.

11. *Zertan dira askatasuna eta berdintasuna gaur egun?*

Xabier Agirre Urteaga. BBK - Euskaltzaindia: 2004ko *Mikel Zarate Saiakera* saria. 180 orrialde.

12. *Neologismos en la obra de Sabino Arana Goiri*

Ines Pagolak paraturiko liburukia da, bere doktorego-tesi eguneratua: Euskaltzaindiaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko Hitzarmenari esker argitaratua. 452 orrialde.

13. *Antzuolako toponimia*

Kristina Pavo-k prestatuturiko liburukia. Euskaltzaindiaren *Onomasticon Vasconiae* bildumako 25. zenbakiduna. Erakunde eta elkarte hauen diru-laguntzari esker argitaratu da: Antzuolako Udala, *Goizper* Koop. Elkartea, *Elay Taldea*, *Matz-erreka* Koop. Elkartea, Kutxako Gizarte Ekintza, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila. 756 orrialde.

14. *Narrazioak eta olerkiak 2004*

Euskaltzaindiak eta Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak 2004an antolatu zuten *R.M. Azkue* sariak irabazi zituztenen lanak argitaratu dira liburu honetan. 124 orrialde.

### III.3.2. ARGITALPEN SALMENTA ZERBITZUA

#### Salmenta

Euskaltzaindiak argitalpenen hedapen-salmenta banatzaileen bitartez egiten du gehien bat. Hala ere, *Euskaltzaindiaren Arauen* eta *Euskera* agerkariaren kasuetan harpidetza sistema erabiltzen du eta, ondorioz, argitalpen zerbitzuaren bezeroekiko harremana zuzenagoa izaten da.

Euskaltzaindiaren Arauen harpidedunak, 2005. urte bukaeran 1.856 izan dira, eta *Euskera* agerkariarenak, berriz, 315. Gainerako argitalpenei dagokionez, liburu-dendei 92 zenbaki saldu zaizkie, banatzaileei 1.597 eta gizabanako eta erakunde desberdinei, 801.

Ohiko salmentekin eta *Arauk* zein *Euskera* agerkariaren harpidetzekin lortutako diru emaitza 80.247,15 eurokoa izan da.

Liburu-dendei eginiko salmentak zertxobait igo dira. *Webgunetik* eskari ugari jaso dira. 2005. urtean izan diren eskari guztietarik % 75 *e-mail* bidez izan dira.

Argitalpenik salduenak *Euskera 2000, 2 (Hiztegi Batua)*, *Euskal Izendegia* eta *EGLU VI: Mendeko Perpausak (II)* izan dira. Trukezko harremanetan 646 ale banatu dira.

#### Azokak

Azaroaren 8tik 13ra, Euskaltzaindiaren Argitalpen Zerbitzua Bartzelonan, *Saló del Llibre 2005* Liburu Azokan izan da, Institut d'Estudis Catalans eta Consello de Cultura



Bartzelonan, Saló del Llibre 2005 azokan 2005-XI-10ean. **Ezkerretik eskuinera:** Ricardo Badiola, Manuel Pascual eta Jon Artza.

Galegarekin batera. Aurreko urte bietan *Liber-en* izan da. *Liber-eko* esperientzia positiboa izan bazen, aurtengoa are positiboagoa izan da, Institut d'Estudis Catalans-ekin (IEC) harremana sakontzeko balio izan duelako. Bertako Erakunde horren buruaz gain, zenbait eragile eta langilerekin hartu-emanak izan dira. Horretaz gain, *Saló del Llibre*, gehien bat irakurleari bideratua dugu eta haatik salmentak ere aurreko urteetan baino handiagoak izan dira.

Abenduan ordea, eta ohiturari jarraikiz, Durangon egin da *Euskal Liburu eta Disko Azokaren* 40. edizioa, abenduaren 7tik 11ra. Beti legez bertan izan da Euskaltzaindia, azken argitalpenak aurkeztu eta bisitariei behar adina argibide emanaz. Aurten, eta arestian aipatu den elkarlanaren ondorioz, Institut d'Estudis Catalans erakundea ere Durangon izan da, Erakunde horren argitalpen arduraduna den Manuel Pascual etorri delarik.

Saran izaten den Euskal Idazleen Biltzarrean ere izan da Euskaltzaindia. Liburu azoka ere baden biltzar hau, geroz eta gehiago Iparraldeko euskaltzaleentzat erreferentzi bilakatzen ari da.

Euskal Herrian egin diren beste zenbait liburu eta disko azokatan, zuzenean joan ez arren, Akademiaren argitalpenak banatzaileen bitartez eraman dira, batik bat alor honetan aritzen den *Abarka* enpresarekin eginiko kudeaketan ondorioz.

## **Gordailua**

Aurreko urtean aurreikusi bezala, Gordailuan eraldaketa sakona egin da:

- Sailkatu gabe zeuden argitalpen guztiak dagokien tokian kokatu dira.
- Inbentario zehatza egin da.
- Gordailua informatizatu egin da. Horren ondorioz, gaur egun, informatika bidez eramaten da argitalpenen sarrera-irteeren kontrola, inbentario eguneratua eta beterik edo hutsik dagoen espazioaren kuantifikazioa.

Honetaz gain, Euskaltzaindiak Bilbo ondoko Etxebarri herrian duen Gordailuan artxibo-lanak ere egin dira:

- Barne-artxiboa: Euskaltzaindiak, urteetan zehar bildu, landu eta ekoiztu duen dokumentazio sailkatua gordetzeko erabiltzen dena.
- Kanpo-artxiboa: Euskaltzaindiak izandako harremanak kanpoko erakunde, elkarte, talde eta abarri erosiz, trukaturaz zein dohainik jasoz, bildu diren material sailkatuen gordetegia, hots, liburuak, aldizkariak, egunkariak, posterrak eta abar, gordetzeko erabilia.

## **IV. Herri adminitrazio eta erakundeak**



## IV. HERRI ADMINISTRAZIO ETA ERAKUNDEAK

### IV.1. EUSKO JAURLARITZA ETA HIRU DIPUTAZIOAK

#### **Bost urterako hitzarmena sinatzea**

Urriaren 7an, Eusko Jaurlaritzak eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiek batetik, eta Euskaltzaindiak, bestetik, bost urterako Hitzarmena sinatu dute, Akademiaren egoitzan. Datozen bost urteotan indarrean izango den dokumentuaren xede nagusiak hauek dira: alde batetik, Euskaltzaindiaren eta Eusko Jaurlaritza, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko lurralde historikoetako foru aldundien arteko lankidetzarako oinarriak finkatzea; eta, beste alde batetik, Euskaltzaindiaren etorkizuneko jarduna bermatzeko alderdi bakoitzak bereganatzen dituen konpromiso materialen zein finantzamenduaren arloen esparrua arautzea. Hitzarmen horren bitartez, Euskaltzaindiaren gastu arrunta eta, oro har, jarduera akademikoa, ziurtatzen dira.



Egoitzan, EAEko Herri Aginteeekin hitzarmena sinatzen, 2005-X-7an. **Ezkerretik eskuinera:** Belen Greaves, Joxe Juan Gonzalez de Txabarri, Andres Urrutia, Miren Azkarate eta Federico Verástegui.

Akademiaren izenean, Andres Urrutia euskaltzainburuak sinatu du eta EAEko Herri Aginteen izenean, honako hauek: Miren Azkarate, Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuak;

Federico Verástegui, Arabako Kultura, Gazteria eta Kiroletako foru diputatuak; Belen Greaves, Bizkaiko Kulturako foru diputatuak, eta Joxe Joan Gonzalez Txabarri, Gipuzkoako Diputatu Nagusiak. Hitzarmen honen jarraipenerako, bi batzorde izendatu dira: Jarraipen Batzordea eta Batzorde Teknikoa.

### **Errendapen txostenak**

Herri Aginteekin sinatutako Hitzarmenaren arabera, egitasmo eta batzorde akademikoen lanen errendapen-txostenak bidaltzen dizkie Euskaltzaindiak Herri Administrazioei. 2005. urteari dagokionez, errendapen-txosten hauek igorri zaizkie EAEko Herri Administrazioei: apirilean, 2004ko bigarren urte-erdikoak eta, abenduan, 2005eko lehen urte-erdikoak. Txosten horietan, batzorde, egitasmo eta lantalde hauen lana jaso da: *Orotariko Euskal Hiztegia*, Hiztegi Batuko lantaldea, UZEI: Hiztegi Batua eta EEBS, Gramatika batzordea, Dialektologia batzordea (Atlasa), Onomastika batzordea, Herri Literatura batzordea, Literatura Ikerketa batzordea, Euskara Batuko batzordea, Corpus batzordea, Sustapen batzordea eta Argitalpen batzordea.

### **Jarraipen Batzordea eta Batzorde Teknikoa**

2005ean ez da batzorde hauen bilerarik egin. Harremanak eta informazio trukaketa posta elektronikoaren bidez egin dira.

## **IV. 2. NAFARROAKO GOBERNUA**

### **2005eko Protokoloa sinatzea**

Martxoaren 16an sinatu da Euskaltzaindiaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko Hitzarmeneko 2005eko Protokoloa. Akademiaren izenean, Andres Urrutia euskaltzainburuak izenpetu du eta Foru Gobernuaren izenean Pedro Pegenaute Unibertsitate eta Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusiak.



*Uharte-Iruñean, Zubiarte euskaltegian, "Ahozko euskara: dakiguna eta darabilguna" Jardunaldia, 2005-IX-29an. Edu Zelaieta hitzaldia ematen.*



Akordio horren arabera, hauek dira 2005. urteko eginkizun nagusiak:

- Euskararen Herri Hizkeren Atlas (EHHA) egiteko bildu ziren Nafarroako 3 herri-tako (*Aniz, Dorrao eta Etxaleku*) grabazioak euskarritan paratu eta ematea.
- Jose Mari Satrustegiren artxibategien katalogazio eta digitalizazio lanak: 2004an hasitako lanak amaitzea.
- *Baztango Gramatika* argitaratzea.
- Ahozkotasunari buruzko Jardunaldiak egitea. Jardunaldi hauek irailaren 28an eta 29an burutu dira Uharte-Iruñean, Euskararen Irakaskuntzako Baliabide Zentroan. Gaia “Ahozko euskara: dakiguna eta darabilguna” izan da.
- Euskal Corpus Onomastikoa: Nafarroari dagozkion lanei hasiera ematea.

### **Jarraipen Batzordearen bilerak**

Martxoan, irailean eta abenduan egin dira Nafarroako Gobernuaren eta Euskaltzaindiaren arteko Hitzarmeneko Jarraipen Batzordearen bilerak, Iruñeko Hezkuntza Sailaren egoitzan. Bilerotan hauek izan dira: Euskaltzaindiaren izenean, Andres Urrutia, Jose Luis Lizundia, Andres Iñigo eta Juanjo Zearreta. Gobernuarenean, Pedro Pegenaute, Julen Calvo eta Iñaki Ayesa.

Bilera horietako gai nagusiak hauek izan dira: 2005eko Protokoloa adostea eta 2005eko eginkizunen jarraipena egitea. 2006. urterako eginkizunak ere aztertu dira.

### **Batzorde Teknikoaren bilerak**

Nafarroako Gobernuaren eta Euskaltzaindiaren arteko Hitzarmeneko Batzorde Teknikoa lau aldiz bildu da aurtun, martxoaren 1ean, uztailaren 5ean, irailaren 28an eta azaroaren 4an. Nafarroako Gobernuaren izenean hauek izan dira: Adoración López Jurío, Mikel Arregi eta Iñaki Ayesa eta Euskaltzaindiarenean, Juan Jose Zearreta eta Pello Telleria.

Bilera horietako gai nagusiak hauek izan dira: 2004ko lanen jarraipena egitea, Nafarroako Gobernuak eta Euskaltzaindiak sortu duten *Mendaur* argitalpen bildumaren ezaugarri teknikoak finkatzea eta 2005eko lanen egoera aztertzea.

## **IV. 3. ESTATU ADMINISTRAZIOA**

Espainiako Administrazio Zentraleko Hezkuntza eta Kultura Ministerioaren Unibertsitate eta Ikerketarako Estatu Idazkaritzan dago ofizialki kokatua Euskaltzaindia. Hizkuntza Akademientzako aurrekontu orokor bat dauka Ministerioak, nondik gauzatzen den gure Akademiarentzako diru-laguntza, Espainiako, Galiziako eta Kataluniako erakundeetako kideekin batera.

### **Cervantes Institutua**

Uztailaren 28an, Euskaltzaindiak eta Cervantes Institutuak lehendabiziko lankidetzahitzarmena sinatu dute, egoitzan. Hitzarmen honen xedeari jarraituz, euskal hizkuntza eta kultura bultzatuko dute bi erakundeok, batez ere Euskal Herritik kanpora eta *Instituto Cervantes*-en zentroen bitartez.

César Antonio Molina, Cervantes Institutuko zuzendariak, eta Andres Urrutia euskaltzainburuak, sinatu dute Hitzarmena. Horiekin batera, Euskaltzaindiko Zuzendaritzako kide hauek izan dira sinadura ekitaldian: Xabier Kintana, idazkaria; Jose Luis Lizundia, diruzaina; Henrike Knörr, *Iker* sailburua; eta Andres Iñigo, *Jagon* sailburua, baita Javier Lanza, Cervantes Institutuko Gabineteko zuzendaria ere.



Egoitzan, **Instituto Cervantes**-ekin Hitzarmena sinatzen, 2005-VII-28an. **Ezkerretik eskuinera:** Andres Urrutia eta César Antonio Molina.

Bi urteko indarraldia izango duen Hitzarmen horren ondorioz, *Instituto Cervantes*-ek, bere zentroen erabilgarritasunaren arabera, eta aurretik Euskaltzaindiak eskaria eginez, tokia utziko dio bere zentroetan, euskal kultura zabaltzeko Jarduerak egin daitezzen, Euskaltzaindiak bere izenean bakarrik edo *Instituto Cervantes*-ekin batera antolatuz. Bi aldeek Jarraipen Batzorde bat eratuko dute, hiruna kidez osatua; *Instituto Cervantes*-etik, Kultura Zuzendaria, Zuzendari Akademikoa eta Diplomen eta Kanpo Kudeaketaren Zuzendaria izango dira; eta Euskaltzainditik, berriz, Idazkaria, Diruzaina eta *Iker* sailburua.

Edonola ere, Euskaltzaindiak Henrike Knörr *Iker* sailburua izendatu du Akademiaren ordezkari, Cervantes Institutuak kanpoan antolatzen dituen ekitaldietarako. 2005ean, ondoko hirietan izan da Henrike Knörr: Madrilen, apirilean; A Coruñan, uztailen; Pragan, irailean, eta Lisboan, azaroan.

#### IV.4. IPARRALDEKO HERRI AGINTEAK

Herri Agintek, 2000.urtean egindako Euskal Herrirako Hitzarmen Berezian, Euskaltzaindiari euskararen ikerketan duen zeregina aitortzen zitzaion, eta, ondorioz, administrazio desberdinek beren laguntzak eman izan dizkiote Euskaltzaindiari.

2005.urtean, Euskal Herriko Hitzarmen Berezian esker Herri Agintek Euskaltzaindiari ematen dizkioten diru-laguntzak Euskararen Erakunde Publikoak kudeatzen ditu, urte honetatik hasita. Beraz Frantziako Gobernuaren, Akitania Herrialdeko Konseiluaren eta Pirinio Atlantikoaren diru-laguntzak Euskararen Erakunde Publikoak ematen dizkio Euskaltzaindiari.

Euskaltzaindiak eta Euskararen Erakunde Publikoak urteko Hitzarmena apirilaren 18an sinatu dute, Andres Urrutiak Euskaltzaindiaren izenean eta Max Brissonnek Euskararen Erakunde Publikoaren izenean.

### **Frantziako Institutu Geografiko Nazionala**

Maiatzaren 10ean, Baionan, Euskaltzaindiak eta Institutu Geografiko Nazionalak Hitzarmenaren eranskina sinatu dute. Hitzarmen horren xedea, Iparraldeko euskal toponimia zehaztea eta finkatzea da.

## **IV.5. UDALAK**

### **EUDEL (Euskadiko Udalen Elkarte)**

2004ko otsailaren 27an, Euskaltzaindiak eta EUDELek Hitzarmen berria sinatu zuten toki erakundeei laguntza teknikoa emateko, izen toponimikoen arloan. Hitzarmen honen xedeari jarraituz, bi erakundeek aholkularitza ematen diete toki-entitateei, lekurik esanguratsuenen izen toponimikoen inguruan hartu beharreko erabakietan.

### **Donostia**

*Xalbador bertsolaria* kalean, Donostiako Udalak duen eraikuntza bat erabiltzen du Euskaltzaindiak 2001etik, egitasmo akademikoetarako. Euskaltzaindiaren Hiztegiaren lantaldeak jardun du hor lanean.

### **Gasteiz**

Euskaltzaindiak, Gasteizko Udalarekin sinatua du Hitzarmena, zeinetan hiriburu horretako ordezkartzan, udal-barruti osoaren herriz herriko toponimia ikertzen eta normalizatzen diharduen lantaldea –nagusiki– eta ordezkartzakako herri zerbitzuak babesten dituen.

Akademiak, 2004ko ekainetik 2005eko uztaila bitartean egindako lanen errendapen txostena aurkeztu dio Udalari. Hauek dira txosten horretan agertzen diren gai nagusiak:

- Euskaltzaindiak Gasteizen duen ordezkartzak eman dituen zerbitzuak.
- Gasteizko Toponimia lantaldearen lana.
- Kasuan kasuko zerbitzuak.
- Kontu-errendapena.

### **Iruñea**

Otsailaren 24an, urtebeteko iraupena duen Hitzarmena sinatu dute Iruñeko Udalak eta Euskaltzaindiak: Udalaren izenean, Ignacio Pérez Cabañas, Kultura zinegotzi delegatuak eta, Euskaltzaindiarenean, Andres Urrutia euskaltzainburuak. Hitzarmen horren helburuak honako hauek dira:

- Euskaltzaindia Iruñeko Udalaren aholku emaile izango da, euskararekin zerikusirik duten hizkuntza-gaietan.
- Euskaltzaindiak, hiritarrek eskaturiko argibideak eta aholkuak eskaintzen jarraituko du, zerbitzu orokorretan eta Iruñean kokaturik dagoen Nafarroako ordezkartzan.
- Euskaltzaindiak, kultura hedapenerako Jarduerak, ikastaroak, hitzaldiak eta abar bultzatuko ditu, eta horretarako behar diren erakunde eta elkarteekin arituko da elkarlanean.

- Euskaltzaindiak sustatzen dituen argitalpen, aldizkari edo edizio guztietatik sei ale emanen dizkio Iruñeko Udalari, beti ere Hitzarmenaren esparruari dagozkion gaietarako buruzkoak baldin badira.
- Udalak diru-laguntza eman dio Euskaltzaindiari.

### **Tolosako Udala**

2004ko uztailaren 16an, lankidetzan Hitzarmena sinatu zuten Tolosako Udalak eta Euskaltzaindiak. Hitzarmen horren xedea honako hauexek dira: “Tolosako Leku-izenak” deiturikoa lana sistematizatzea, azalpen-testuak lantzea, material grafikoa hautatzea eta maketatzea.

Sinatutako Hitzarmenaren arabera, Akademiak datu-basea hartu eta ondoko lanak egin behar zituen: argitaratu beharreko materiala aukeratu; zerrenda egokiak definitu eta prestatu, bai eta material grafikoa, aipamen historikoen zerrenda eta azalpen testuak ere. 2005. urtean, *Tolosako leku izenak* izeneko liburua eta herriko karta ere prestatu dira.

### **Erandioko Udala**

Ekainaren 20an, lankidetzan Hitzarmena sinatu dute Erandioko Udalak eta Euskaltzaindiak. Udalaren izenean, Mikel Arieta-Araunabeña alkateak eta, Euskaltzaindiarenean, Andres Urrutia euskaltzainburuak. Hitzarmen horren xedea honako hauexek dira: Erandioko toponimoak eta herriko ageriko hizkuntza-paisajea normalizatzea.

Erandioko toponimia ikertu eta arautzeko, beka-deialdia egin du Udalak, eta Iratxe Lasa ikerlariak eskuratu du beka hori eta Euskaltzaindiaren zuzendaritzapean ari da; Akademiak, Patxi Galé Onomastika batzordeko kidea izendatu du lan horren gainbegiratzailer bezala, eta Mikel Gorrotxategi eta Patxi Galé dira Hitzarmen horretako Jarraipen Batzordeko kideak. Ikerketa burutzeko, Udaletxeko artxiboaz gain, Bizkaikoak, Madrilekoak eta Salamancakoak ere arakatuko dira.



Egoitzan, Erandioko Udalarekin Hitzarmena sinatzen, 2005-VI-20an. **Ezkerretik eskuinera:** Mikel Arieta-Araunabeña, herriko alkatea eta Andres Urrutia, euskaltzainburua.

## IV. 6. UNIBERTSITATEAK

### IV.6.1. EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

Azaroaren 29an, Euskal Herriko Unibertsitateak eta Euskaltzaindiak, bi erakundeon arteko 2005. urteko eranskina sinatu dute. EHUren izenean, Juan Ignacio Pérez Iglesias errektoreak eta Akademiarenean, Andres Urrutia euskaltzainburuak. Eranskin horretan zehazten den legez, Kepa Altonagaren *Etxepare Aldudeko medikua* liburua eta Jon Kortazarren *Literatura vasca desde la transición* (Bernardo Atxaga) ingeleserako itzulpen-lana argitaratu behar dituzte bi erakundeok. Euskaltzaindiko ordekariek –Euskaltzainburuak, Idazkariak eta Diruzainak– harreman ugari izan dute urtean zehar Ludger Mees Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara errektoreordearekin.



Donostian, Kutxaren **Doctor Camino** liburutegian, **Nerekin yaio nun: Txillardegiri omenaldia** liburukiaren aurkezpena, 2005-IX-20an. **Ezkerretik eskuinera:** Ludger Mees, Jose Luis Alvarez Enparantza “Txillardegi” eta Andres Urrutia.

### IV.6.2. UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA

Udako Euskal Unibertsitateak eta Euskaltzaindiak Hitzarmena sinatua dute, 2003ko abendutik, Euskal Komunitate Zientifikoaren datu-basean (*Inguma*) lankidetzan jarduteko.

Hitzarmen horren babesari esker lanean aritu dira bi erakundeak –UEU, Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekarekin batera burutzen ari da lana– Akademiaren ahozko zein idatzizko dokumentuak *Inguma* datu-basean katalogatuz.

2005ean, Euskaltzaindia eta UEUren arteko Lankidetzeta-Hitzarmena honetan gauzatu da:

- *Euskera* agerkariaren 48 eta 49. zenbakiak (hau da 2003. urteko eta 2004. urteko zenbakiak),

- Euskaltzaindiak 2004 eta 2005.urteetan argitaratutako liburukiak.
- Euskal produkzio zientifiko-intelektualaren segimendu orokorra Azkue Bibliotekako katalogoaren eta funtsen kontsultaren bitartez.

#### IV.6.3 DEUSTUKO UNIBERTSITATEA

Euskaltzaindiaren eta Deustuko Unibertsitatearen arteko Lankidetzaz-Hitzarmena indarrean dago 2001etik. Horren barnean, 2005. urteari dagokionez, *Deiker* Unibertsitate horretako Ikerkuntzaren Sustapenerako Institutuarekin batera, Toponimia arloko gaiak landu dira, Arabako Toponimia Txikiaren normalizazte-lanari ekinez.

#### IV.7. EUSKALTEL

2002. urtetik, *Euskaltel* enpresak eta Euskaltzaindiak Hitzarmena sinatua dute. Hitzarmen horren bidez, Euskaltelek JAGONET zerbitzuarentzako diru-laguntza eman dio Euskaltzaindiari eta Egungo Euskararen Bilketa Sistematikoko datutegia dauka *Euskaltelek* ordenagailuetan ([www.euskaracorpora.net](http://www.euskaracorpora.net)), horren kostua bere gain hartuz.

#### IV.8. EITB

Euskal Irrati Telebistak (EiTB) –eta horren sozietateak diren Euskal Telebista, Eusko Irratia eta Radio Vitoria– eta Euskaltzaindiak elkarren arteko lehendabiziko hiru urterako Lankidetzaz-Hitzarmena sinatu zuten 2003an.

Akordio horren arabera, bi erakundeon arteko lankidetzaz Jarduerak hiru arlokoak dira: lexikoa, batez ere Onomastika alorrean, eta bereziki EiTBn erabiltzen diren toponimo, exotoponimo, antroponimo eta abarri lotua; hizkuntzaren gramatika eta ahoskerari buruzko arauak eta jarraibideak, hizkuntzaren ahozko erabilerekin lotuak.

Hitzarmen horren ildotik, txosten hauek helarazi dizkio Euskaltzaindiak EiTBri, eta hauek izan dira gai nagusiak:

- *Azazeta* mendatearen ahoskerari buruzko irizpidea.
- Aita santuen izenez, oro har eta, zehazkiago *Joan Paulo* aita santuarenaz.
- *San Petri* (edo *Done Petri*) izen arautuaz. Erabilera arautua gogorarazi da: 66. Araua: "Santutegiko izen ohikoak" eta 129. Araua: "San, santu, done eta besteren erabilera".
- 143. Araua bidali da, erabaki bezain laster ("–*erri(a)* osagaia gaurko toponimian").
- Radio Euskadi-ren eskariz, Bizkaiko herritarren izenen berri eman da.

#### IV.9. EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN KONFEDERAZIOA

Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak eta Euskaltzaindiak lehendabiziko Lankidetzaz-Hitzarmena sinatu zuten 2004ko urriaren 21ean. Bost urteko iraupena duen Hitzarmen horrek bi erakundeon arteko loturak sendotzea du helburu, elkarren aitorpenetik abiatuz.

Hitzarmenak zehazten duenez, Jarraipen Batzordea eratu da, koordinazio lanak egiteko. Euskaltzaindiari dagokionez, hauek dira batzorde horren kideak: Jose Luis Lizundia, diruzaina; Andres Iñigo, *Jagon* sailburua eta Jon Aurre, euskaltzain urgazlea eta *Corpus* batzordeko Euskalkien lantaldekoa.

Bestalde, hauek dira Ikastolen Konfederazioaren ordezkariak: Xabier Azanza Arbizu, Nafarroako Ikastolen Elkarteko burua; Xabier Garagorri Yarza, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioko Pedagogia aholkularia; eta Erramun Osa Ibarloza, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioaren *Euskaraz Bizi* hizkuntz egitasmoaren arduraduna.

#### IV.10. TOPAGUNEA

Apirilaren 12an, Topagunea Euskara Elkarten Federazioak eta Euskaltzaindiak lehendabiziko Lankidetzeta-Hitzarmena –bost urteko iraupena duena– sinatu dute, Euskaltzaindiaren egoitzan. Topagunearen izenean Joxe Mari Mujika buruak sinatu du eta, Euskaltzaindiarenean, Andres Urrutia euskaltzainburuak. Jasone Mendizabal, Topagunea Federazioaren zuzendaria eta; Jose Luis Lizundia, Euskaltzaindiko diruzaina ere mahaian izan dira eta Hitzarmenaren nondik norakoak azaldu dituzte.



Egoitzan, Topagunea-rekin Hitzarmena sinatzen, 2005-IV-12an. **Ezkerretik eskuinera:** Jasone Mendizabal, Jose Mari Mujika, Andres Urrutia eta Jose Luis Lizundia.

Hitzarmen horren ondorioz, bi erakundeok elkarlanean arituko dira, euskararen normalizatorako proposatzen diren egitasmoen inguruan, baita Euskaltzaindiak euskararen arloan ezarritako Arauak eta egindako Gomendioak zabaltzeko ere. Euskararen erabilera egokia bultzatzeko, Topaguneari laguntza eskainiko dio Euskaltzaindiak, euskal lexiko, gramatika, toponimia, ortografia eta euskalkiei buruzko kontsultak direnean.

Bestalde, urriaren 6an egin da Jarraipen Batzordearen bilera Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan. Hauek izan dira Euskaltzainditik: Jose Luis Lizundia, diruzaina;

Xabier Kintana, idazkaria; eta Pello Telleria, idazkariordea. Topagunearen aldetik, hauek: Maria Gonzalez, Hedabideen Saileko teknikaria; eta, Iker Martinez de Lagos, idazkaria. Bileran, elkar-lanerako Hitzarmenean aipatzen diren bideak zehazteko urratsak eman dira: jardunaldiak, kontsultak eta argitalpenak.

#### IV.11. FEVE

Ekainaren 15ean, FEVEk (*Ferrocarriles de Vía Estrecha* delakoak) eta Euskaltzaindiak lehendabiziko Lankidetzeta-Hitzarmena sinatu dute, egoitzan. Hitzarmen horrek, hizkuntzaren normalizazioa du helburu. Horren bidez, tren-geltokien izenak edota tren-bideko euskarazko testu guztiak modu egokian jartzeko laguntza ematen dio Euskaltzaindiak FEVEri.

FEVEren izenean, Dimas Sañudo buruak sinatu du eta, Euskaltzaindiarenean, Andres Urrutia euskaltzainburuak. Jose Luis Lizundia, Euskaltzaindiko diruzaina eta Onomastika batzordeko kidea ere bertan izan da. Bi erakundeok elkarlanean arituko dira, euskararen presentzia normalizatzeko aldera. Hitzarmenak urtebeteko iraupena izango du, baina urtero luzatu ahal izango da.

Hitzarmen hau koordinatzeko, FEVEk eta Euskaltzaindiak Jarraipen Batzordea eratu dute, bakoitzak bi ordezkari dituelarik. Zuzendaritzak, ekainaren 23ko bileran, Pello Telleria, idazkariordea eta Mikel Gorrotxategi, Onomastika Zerbitzuaren arduraduna izendatu ditu Jarraipen Batzorde horretan Euskaltzaindiaren ordezkari izan daitezen. FEVEko ordezkariak Verónica Portell eta Francisco Basterretxea dira.



Egoitzan, FEVErekiko lehen Hitzarmena sinatzen, 2005-VI-15ean. **Ezkerretik eskuinera:** Dimas Sañudo eta Andres Urrutia.





**V. Euskaltzaindiaren organigrama eta aurkitegia /  
Organigrama de Euskaltzaindia /  
Organigramme et répertoire d'Euskaltzaindia:**

**V.1. Euskaltzainen eta kargudunen zerrendak /  
Relación de académicos y cargos /  
Académiciens et responsables**

**V.2. Batzordeen zerrendak /  
Comisiones académicas /  
Commissions académiques**

**V.3. Aurkitegia /  
Directorio /  
Répertoire**



## V.1. EUSKALTZAINEN ETA KARGUDUNEN ZERRENDAK / RELACION DE ACADÉMICOS Y CARGOS / ACADÉMICIENS ET RESPONSABLES

### EUSKALTZAIN OSOAK / ACADÉMICOS DE NÚMERO / ACADÉMICIENS TITULAIRES

Patxi Altuna (†)	Emile Larre
Jose Antonio Arana Martija	Juan Mari Lekuona (†)
Adolfo Arejita	Jose Luis Lizundia
Miren Azkarate	Beñat Oihartzabal
Pierre Charritton	Patxi Salaberri
Jean-Louis Davant	Txomin Peillen
Xabier Diharce “Iratzeder”	Pello Salaburu
Patxi Goenaga	Ibon Sarasola
Jean Haritschelhar	Ana Toledo
Andres Iñigo	Andres Urrutia
Xabier Kintana	Patxi Zabaleta
Henrike Knörr	Antonio Zavala

### ZUZENDARITZA / JUNTA DE GOBIERNO / COMITÉ DE DIRECTION

*Andres Urrutia*, euskaltzainburua / Presidente / Président  
*Beñat Oihartzabal*, buruordea / Vicepresidente / Vice-président  
*Xabier Kintana*, idazkaria / Secretario / Secrétaire  
*Jose Luis Lizundia*, diruzaina / Tesorero / Trésorier  
*Henrike Knörr*, **Iker** sailburua / Director de la Sección de Investigación / Directeur  
de la Section de Recherche  
*Andres Iñigo*, **Jagon** sailburua / Director de la Sección Tutelar / Directeur de la  
Section de Sauvegarde

\* \* \*

### ORDEZKARIAK / DELEGADOS / DÉLÉGUÉS

Gipuzkoa / Guipúzcoa / Guipuzcoa : *Ana Toledo*  
Araba / Álava / Alava : *Henrike Knörr*  
Nafarroa / Navarra / Navarre : *Andres Iñigo*  
Iparraldea / Pays Basque Nord : *Pierre Charritton*

\* \* \*

## ERAGILEAK / GESTORES / RESPONSABLES

Juan Jose Zearreta, Kudeatzailea / Gerente / Gérant  
Pello Telleria, idazkariordea / Vicesecretario / Secrétaire adjoint  
Prudentzio Gartzia, Azkue Bibliotekako zuzendaria / Director de la Biblioteca Azkue  
/ Directeur de la Bibliothèque Azkue  
Ricardo Badiola Uriarte, argitalpen eragilea / Gestor de publicaciones /  
Responsable des publications

## HITZARMENAK / CONVENIOS / CONVENTIONS

Erakundea / Institution	Ordezkaria/Representante/ Délégué
Euskal Herriko Unibertsitatea / Universidad del País Vasco / Université du Pays Basque	Euskaltzainburua, Idazkaria, Diruzaina
Deustuko Unibertsitatea / Universidad de Deusto / Université de Deusto	Andres Urrutia, Jose Luis Lizundia
EUDEL / Asociación de Municipios Vascos / Association des Communes Basques	Diruzaina, Idazkariordea
Gasteizko Udala / Ayuntamiento de Vitoria / Mairie de Vitoria	Arabako ordezkaria
Eusko Jaurlaritza eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Diputazioak / Gobierno Vasco y las Diputaciones de la CAV/ Gouvernement Basque et les Députations de la CAB	Burua, Idazkaria, Diruzaina, Iker eta Jagon sailburuak
Nafarroako Gobernu / Gobierno de Navarra / Gouvernement de Navarre	Burua, Idazkaria, Diruzaina, Nafarroako ordezkaria
UZEI	Idazkariordea, Kudetzailea
<i>Instituto Cervantes</i>	Idazkaria, Diruzaina eta Iker sailburua
Udako Euskal Unibertsitatea	Euskaltzainburua
Topagunea	Idazkaria eta Diruzaina
Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa	Jose Luis Lizundia, Andres Iñigo eta Jon Aurre
FEVE	Pello Telleria, Mikel Gorrotxategi

## **V.2. BATZORDEEN ZERRENDAK / COMISIONES ACADÉMICAS / COMMISSIONS ACADÉMIQUES<sup>1</sup>**

### **IKER SAILA / SECCIÓN DE INVESTIGACIÓN / SECTION DE RECHERCHE**

Sailburua / Director / Directeur : Henrike Knörr

### **I. HIZTEGIGINTZA / LEXICOGRAFÍA / LEXICOGRAPHIE**

Burua / Presidente / Président : Ibon Sarasola

Batzorde hau bi azpibatordetan banatzen da / Esta comisión se divide en dos subcomisiones / Cette commission se divise en deux sous-commissions :

#### **I.1. Euskaltzaindiaren Hiztegiaren lantaldea / Equipo de trabajo del Diccionario de Euskaltzaindia / Groupe de travail du Dictionnaire d'Euskaltzaindia**

*Arduraduna / Responsable* : Ibon Sarasola

*Kideak / Miembros / Membres* : Arantza Egia, Gabriel Fraile, Elizabet Kruzeta, Ane Loidi, Ainhoa Otamendi, Iñaki Segurola.

#### **I.2. Hiztegi Batuko lantaldea / Equipo de trabajo del Vocabulario Unificado / Groupe de travail du Dictionnaire Unifié**

*Arduraduna / Responsable* : Jose Antonio Aduriz

*Kideak / Miembros / Membres* : Luis Baraiazarra, Jean-Louis Davant, Koro Navarro, Paskual Rekalde, Andoni Sagarna, Iñaki Segurola, Miriam Urkia, Xarles Videgain.

### **II. GRAMATIKA batzordea / Comisión de GRAMÁTICA / Commission de GRAMMAIRE**

*Burua / Presidente / Président* : Pello Salaburu

*Idazkaria / Secretario / Secrétaire* : Jesus Mari Makatzaga

*Kideak / Miembros / Membres* : Iñaki Amundarain, Miren Azkarate, Luis Baraiazarra, Pierre Charritton, Beatriz Fernandez, Juan Garzia, Patxi Goenaga, Nora Iriarte, Alan King, Itziar Laka, Maria Pilar Lasarte, Jose Antonio Mujika, Beñat Oihartzabal, Paskual Rekalde, Karmele Rotaetxe.

<sup>1</sup> Izendapen hauek (2005-V-28): 2005 eta 2006rako dira / Estos nombramientos son para el bienio 2005-2006 / Ces nominations concernent les années 2005 et 2006.

### **III. DIALEKTOLOGIA batzordea / Comisión de DIALECTOLOGÍA / Commission de DIALECTOLOGIE**

*Burua / Presidente / Président* : Adolfo Arejita

#### **Atlasgintza lantaldea / Equipo de trabajo del Atlas Lingüístico / Groupe de travail de l'Atlas Linguistique**

*Arduradunak / Responsables* : Gotzon Aurrekoetxea, Xarles Videgain

*Kideak / Miembros / Membres* : Isaak Atutxa, Iñaki Camino, Ana Maria Etxaide, Jose Mari Etxebarria, Izaskun Etxebeste, Koro Seguroola.

### **IV. ONOMASTIKA batzordea / Comisión de ONOMÁSTICA / Commission d'ONOMASTIQUE**

*Burua / Presidente / Président* : Andres Iñigo

*Idazkaria / Secretario / Secrétaire* : Mikel Gorrotxategi

*Kideak / Miembros / Membres* : Patxi Galé, Henrike Knörr, Jose Luis Lizundia, Elena Martínez de Madina, Felix Mugurutza, Txomin Peillen, Patxi Salaberri Zaratiegi, Amaia Usabiaga.

#### **Exonomastika / Exonomástica / Exonomastique**

*Arduraduna / Responsable* : Jose Luis Lizundia

*Kideak / Miembros / Membres* : Gidor Bilbao, Patxi Galé, Xabier Kintana, Alfontso Mujika.

#### **Aholkulariak / Asesores / Conseillers**

Jean-Louis Davant, Imanol Goikoetxea, Isabelle Duguine, Jose Antonio González Salazar, Roberto Gonzalez de Viñaspre, Hector Iglesias, Iratxe Lasa, Jean-Baptiste Orpustan, Manuel Maria Ruiz Urrestarazu, Bernadette Soulè, Patxi Uribarren.

### **V. LITERATURA batzordea / Comisión de LITERATURA / Commission de LITTÉRATURE**

*Burua / Presidente / Président* : Jean Haritschelhar

#### **V.1. Herri Literatura azpibatzerdea / Subcomisión de Literatura Popular / Sous-commission de Littérature populaire**

*Arduraduna / Responsable*: Pello Esnal

*Idazkaria / Secretario / Secrétaire*: Jabier Kaltzakorta

*Kideak / Miembros / Membres*: Antton Aranburu, Juan Manuel Etxebarria, Jesus Mari Etxezarreta, Jose Mari Iriondo, Emile Larre, Abel Muniategi, Patziku Perurena, Antonio Zavala, Joxe Ramon Zubimendi.

#### **V.2. Literatura Ikerketa batzordea / Comisión de Investigación Literaria / Commission de Recherche littéraire**

*Arduraduna / Responsable / Responsable*: Jean Haritschelhar

*Idazkaria / Secretario / Secrétaire*: Lourdes Otaegi

*Kideak / Miembros / Membres*: Xabier Altzibar, Iñaki Aldekoa, Ur Apalategi, Aurelia Arkotxa, Gorka Aulestia, Jon Casenave, Sebastian García Trujillo, Juan Cruz Igerabide, Jon Kortazar, Maria Jose Olaziregi, Karlos Otegi, Txomin Peillen, Iratxe Retolaza, Ana Toledo, Patri Urkizu.

**VI. EUSKARA BATUKO batzordea / Comisión de EUSKERA UNIFICADO /  
Commission de BASQUE UNIFIÉ**

*Burua / Presidente / Président:* Pello Salaburu

*Kideak / Miembros / Membres:* Miren Azkarate, Xabier Kintana, Henrike Knörr,  
Beñat Oihartzabal, Ibon Sarasola.

**VII. JAGON SAILA / SECCIÓN TUTELAR / SECTION DE SAUVEGARDE**

*Jagon sailburua / Director / Directeur:* Andres Iñigo

**VII.1. Corpus batzordea / Comisión del Corpus / Commission du Corpus**

*Burua / Presidente / Président:* Andres Urrutia

*Idazkaria / Secretario / Secrétaire:* Joxe Ramon Zubimendi

*Kideak / Miembros / Membres:* Dionisio Amundarain, Joseba Butron, Pello Esnal,  
Igone Etxebarria, Juan Luis Goikoetxea, Patxi Iñigo, Xabier Mendiguren,  
Paskual Rekalde.

**Euskalkien lantaldea / Grupo de Trabajo de los Dialectos / Groupe de tra-  
vail des Dialectes:**

*Arduraduna / Responsable:* Paskual Rekalde

*Kideak / Miembros / Membres:* Kaxildo Alkorta, Jon Aurre, Jose Luis Erdozia, Pello  
Esnal, Nagore Etxebarria, Juan Luis Goikoetxea, Maialen Hiribarren, Patxi  
Iñigo, Manu Ormazabal, Alazne Petuya.

**VII.2. Sustapen batzordea / Comisión de Promoción / Commission de  
Promotion**

*Burua / Presidente / Président:* Andres Iñigo

*Idazkaria / Secretario / Secrétaire:* Erramun Osa

*Kideak / Miembros / Membres:* Erramun Baxok, Pierre Charriton, Jean-Baptiste  
Coyos, Aingeru Epaltza, Henrike Knörr, Patxi Juaristi, Santiago Larrazabal,  
Jose Luis Lizundia, Manuel Maria Ruiz Urrestarazu, Andres Urrutia, Ana  
Toledo.

*Aholkularia / Asesor / Conseiller:* Xabier Erize

\* \* \*

**EGITURAZKO BATZORDEAK / COMISIONES ESTRUCTURALES / COMMISSIONS  
STRUCTURELLES**

**VIII. ARGITALPEN batzordea / Comisión de PUBLICACIONES / Commission des  
PUBLICATIONS**

*Burua / Presidente / Président:* Andres Urrutia

*Idazkaria / Secretario / Secrétaire:* Ricardo Badiola Uriarte

*Kideak / Miembros / Membres:* Andres Iñigo, Xabier Kintana, Henrike Knörr, Jose Luis  
Lizundia, Beñat Oihartzabal, Jose Antonio Arana Martija, Adolfo Arejita, Pello  
Salaburu.

**IX. AZKUE BIBLIOTEKA batzordea / Comisión BIBLIOTECA AZKUE / Commission  
de la BIBLIOTHÈQUE AZKUE**

*Burua / Presidente / Président:* Jose Antonio Arana Martija

*Idazkaria / Secretario / Secrétaire:* Prudentzio Gartzia

*Kideak / Miembros / Membres:* Kepa Altonaga, Gidor Bilbao, Sebastian García Trujillo,  
Henrike Knörr, Gerardo Luzuriaga.



*Aholkulariak / Asesores / Conseillers:* Joseba Agirreazkuenaga, Agurtzane Juanena, Joseba Lakarra.

**X. LEGE-EKONOMIA batzordea / Comisión ECONÓMICO-JURÍDICA / Commission ÉCONOMICO-JURIDIQUE**

**X.1. Lege azpibatzordea / Subcomisión jurídica / Sous-commission juridique**

*Burua / Presidente / Président:* Andres Urrutia

*Idazkaria / Secretario / Secrétaire:* Jose Luis Lizundia

*Kideak / Miembros / Membres:* Jose Antonio Arana Martija, Jon Artatxo, Abel Muniategi, Patxi Zabaleta.

**X.2. Ekonomia azpibatzordea / Subcomisión económica / Sous-commission économique**

*Burua / Presidente / Président:* Jose Luis Lizundia

*Idazkaria / Secretario / Secrétaire:* Juan Jose Zearreta

*Kideak / Miembros / Membres:* Xabier Erdozia, Sebastian Garcia Trujillo, Juan Luis Laskurain, Jose Maria Makua Goienetxe, Javier Saizar.

### V.3. HELBIDEAK / DIRECTORIO / RÉPERTOIRE

#### EGOITZA / SEDE / SIÈGE

Plaza Barria, 15  
48005 BILBO  
Telf. : (00-34) 94 415 81 55  
Faxa / Fax : (00-34) 94 415 81 44  
Posta e.: info@euskaltzaindia.net  
Http://www.euskaltzaindia.net  
Kudeatzailea / Gerente / Gérant : Juan Jose Zearreta

PRENTSA ZERBITZUA / SERVICIO DE PRENSA / SERVICE DE PRESSE  
Plaza Barria, 15 - 48005 BILBO  
Telf.: (00-34) 94 415 81 55  
Faxa / Fax : (00-34) 94 415 81 44  
Posta e.: prentsa@euskaltzaindia.net  
Arduraduna / Responsable : Amaia Okariz

ARGITALPEN ZERBITZUA / SERVICIO DE PUBLICACIONES / SERVICE DES PUBLICATIONS  
Plaza Barria, 15 - 48005 BILBO  
Telf.: (00-34) 94 415 81 55  
Faxa / Fax : (00-34) 94 415 81 44  
Posta e.: rbadiola@euskaltzaindia.net  
Arduraduna / Responsable : Ricardo Badiola Uriarte  
Telf.: (00-34) 94 415 81 55  
Faxa / Fax : (00-34) 94 415 81 44

ARGITALPEN SALMENTA / VENTA DE PUBLICACIONES  
Plaza Barria, 15 - 48005 BILBO – Telf.: (00-34) 94 415 81 55  
Gordailua / Almacén / Dépôt:  
Bilbo-Donostia errepidea, z.g. - 4,5 km  
Kukullaga-SAGA eraikuntza, 1. solairua  
48450 ETXEBARRI (Bizkaia) Telf.: (00-34) 94 440 62 58  
Posta e.: jartza@euskaltzaindia.net  
Arduraduna / Responsable: Jon Artza

AZKUE BIBLIOTEKA / BIBLIOTECA AZKUE / BIBLIOTHÈQUE AZKUE

Plaza Barria, 15

48005 BILBO

Telf. : (00-34) 94 415 27 45

Faxa / Fax : (00-34) 94 415 81 44

Posta e.: azkuebib@euskaltzaindia.net

Zuzendaria / Director / Directeur : Pruden Gartzia

ONOMASTIKA ZERBITZUA / SERVICIO DE ONOMÁSTICA / SERVICE  
D'ONOMASTIQUE

Plaza Barria, 15 - 48005 BILBO

Telf.: (00-34) 94 415 81 55

Faxa / Fax : (00-34) 94 415 81 44

Posta e.: mikelonoma@euskaltzaindia.net

Arduraduna / Responsable : Mikel Gorrotxategi

\* \* \*

## ORDEZKARITZAK / DELEGACIONES / DÉLÉGATIONS

### ARABA / ÁLAVA / ALAVA

Alava Jenerala, 5  
01005 VITORIA / GASTEIZ  
Telf. : (00-34) 945 23 36 48  
Faxa / Fax : (00-34) 945 23 39 40  
Posta e.: gasteizordez@euskaltzaindia.net  
Ordezkarria / Delegado / Délégue: Henrike Knörr

### GIPUZKOA / GUIPÚZCOA / GUIPUZCOA

Hernani, 15  
20004 DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN  
Telf. : (00-34) 943 42 80 50  
Faxa / Fax : (00-34) 943 42 83 65  
Posta e.: donostiaordez@euskaltzaindia.net  
Ordezkarria / Delegado / Délégue : Ana Toledo

### NAFARROA / NAVARRA / NAVARRE

Conde Oliveto, 2, 2. eskuina  
31002 IRUÑEA / PAMPLONA  
Telf. : (00-34) 948 22 34 71  
Faxa / Fax : (00-34) 948 21 07 13  
Posta e.: nafordez@euskaltzaindia.net  
Ordezkarria / Delegado / Délégue : Andres Iñigo

### IPARRALDEA / PAYS BASQUE NORD

Thiers, 18. 1  
64100 BAIONA / BAYONNE  
Telf. : (00 33) (0) 559 25 64 26  
Faxa / Fax : (00 33) (0) 559 59 45 59  
Posta e.: baionaordez@euskaltzaindia.net  
Ordezkarria / Delegado / Délégue : Pierre Charritton

